

Lurzoruari buruzko Legea  
Ley de Suelo





# LURZORUARI BURUZKO LEGEA

---

## LEY DE SUELO

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



# LURZORUARI BURUZKO LEGEA

---

## LEY DE SUELO

CARMEN AGOUÉS MENDIZÁBAL  
*UPV/EHUko Administrazio Zuzenbideko irakaslea*

JASONE URKOLA IRIARTE  
*UPV/EHUko Administrazio Zuzenbideko irakaslea*

IÑAKI IÑURRIETA LABAIEN  
IRENE ALDASORO KATARAIN  
*Itzultzaileak*

JUAN GARZIA GARMENDIA  
*UPV/EHUko Euskara Zerbitzua*

JOSE ANGEL TAMAYO ERRAZQUIN  
ANA LETURIA NAVAROA  
*UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Irakasleak*  
*Argitalpenaren koordinatzaileak*

- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Justizia eta Herri Administrazio Saila  
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco  
Departamento de Justicia y Administración Pública
- © Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua  
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.  
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea/Impresión: Itxaropena, S.A.  
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

ISBN: 978-84-9860-275-3

Lege-gordailua/Depósito legal: BI - 2524-09

AURKIBIDEA



ÍNDICE

<b>Prólogo.</b> Idoia Mendia Cueva. . . . .	10
<b>Lurzoruari buruzko Legea eta hirigintza.</b> Carmen Agoués Mendizábal, Jasone Urkola Iriarte. . . . .	17
<b>REAL DECRETO LEGISLATIVO 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo</b> . . . . .	21
<b>Texto refundido de la Ley de Suelo.</b> . . . . .	45
<b>Título preliminar.</b> Disposiciones generales . . . . .	46
<b>Título I.</b> Condiciones básicas de la igualdad en los derechos y deberes constitucionales de los ciudadanos. . . . .	50
<b>Título II.</b> Bases del régimen del suelo . . . . .	60
<b>Título III.</b> Valoraciones . . . . .	86
<b>Título IV.</b> Expropiación forzosa y responsabilidad patrimonial . . . . .	98
<b>Título V.</b> Función social de la propiedad y gestión del suelo. . . . .	110
Capítulo I. Venta y sustitución forzosas . . . . .	110
Capítulo II. Patrimonios públicos de suelo . . . . .	112
Capítulo III. Derecho de superficie . . . . .	116
<b>Título VI.</b> Régimen jurídico . . . . .	118
Capítulo I. Actuaciones con el Ministerio Fiscal . . . . .	118
Capítulo II. Peticiones, actos y acuerdos . . . . .	120
Capítulo III. Acciones y recursos . . . . .	122
Capítulo IV. Registro de la Propiedad . . . . .	124
<b>Disposiciones adicionales</b> . . . . .	128
<b>Disposiciones transitorias</b> . . . . .	146
<b>Disposiciones finales.</b> . . . . .	150
<b>LÉXICO.</b> . . . . .	161



<b>Hitzaurrea.</b> Idoia Mendia Cueva . . . . .	11
<b>Lurzoruari buruzko Legea eta hirigintza.</b> Carmen Agoués Mendizábal, Jasone Urkola Iriarte . . . . .	17
<b>2/2008 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, ekainaren 20koa, lurzoruari buruzko legearen testu bategina onesten duena</b> . . . . .	21
<b>Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina.</b> . . . . .	45
<b>Atariko titulua.</b> Xedapen orokorrak . . . . .	47
<b>I. titulua</b> Herritarrek Konstituzioko eskubide eta eginbeharretan duten berdintasunaren oinarritzko baldintzak . . . . .	51
<b>II. titulua</b> Lurzoruaren araubidearen oinarriak . . . . .	61
<b>III. titulua</b> Balioespenak . . . . .	87
<b>IV. titulua</b> Nahitaezko desjabetzea eta ondare erantzukizuna . . . . .	99
<b>V. titulua</b> Jabetzaren funtzio soziala eta lurzoruaren kudeaketa . . . . .	111
I. kapitulua Nahitaezko salmenta eta ordezipena . . . . .	111
II. kapitulua Lurzoru-ondare publikoak . . . . .	113
III. kapitulua Azalera-eskubidea . . . . .	117
<b>VI. titulua</b> Araubide juridikoa . . . . .	119
I. kapitulua Fiskaltzarekin egiteko jarduketak . . . . .	119
II. kapitulua Eskariak, egintzak eta erabakiak . . . . .	121
III. kapitulua Akzioak eta errekursoak . . . . .	123
IV. kapitulua Jabetza Erregistroa . . . . .	125
<b>Xedapen gehigarriak.</b> . . . . .	129
<b>Xedapen iragankorrak.</b> . . . . .	147
<b>Amaierako xedapenak.</b> . . . . .	151
<b>LEXIKOA.</b> . . . . .	157

# Prólogo

A lo largo de los años 90 se fue evidenciando en la Universidad del País Vasco la necesidad de formar personal universitario capaz y preparado tanto para impartir docencia en euskera como para llevar adelante un trabajo científico de entidad en el ámbito universitario.

Con esa inquietud, algunos profesores bilingües han ido conformando un grupo compacto y homogéneo que abarca distintos ámbitos del Derecho en varias disciplinas.

En este sentido tengo a bien y es un orgullo para mí prologar este nuevo fruto de la colaboración entre este grupo de profesores y el Gobierno Vasco en el que me encuadro como Consejera de Justicia y Administración Pública.

La Ley del Suelo es un texto legal fruto del consenso que viene a regular ámbitos jurídicos en los que en nuestra Comunidad Autónoma el euskera constituye la lengua vehicular por excelencia y por ello mismo precisa una traducción al euskera de su normativa esencial. Es una materia especialmente importante en nuestro país, siendo aplicable *mutatis mutandis* por las similitudes geográficas, lo que se recoge en el Libro Blanco inglés *Land*, que, sirvió de anticipo de la que luego sería la *Land community Act* de 1975: «De todos los recursos materiales de que puede disponerse en estas islas, el suelo es el único que no puede incrementarse. Mediante las relaciones comerciales con otros países podemos obtener más alimentos, más petróleo o más minerales de hierro, a cambio de aquellos artículos o manufacturas que tenemos en abundancia. Pero el abastecimiento de suelo está ya determinado y fijo. Vivimos en un país pequeño y densamente poblado, por lo que la oferta de suelo no sólo está ya determinada, sino que es escasa. Esto hace singularmente importante el deber de planificar correctamente el uso de nuestro suelo.» (Traducción de FERNÁNDEZ, Tomás Ramón, *Manual de Derecho Urbanístico*, pp. 16-17.)

# Hitzaurrea

Euskal Herriko Unibertsitatean agerian geratu zen, 90eko hamarkadan, irakaskuntza euskaraz eman ahal izateko eta unibertsitatearen esparruan pisuzko lan zientifikoak aurrera eramateko gai izango ziren unibertsitate-langileak prestatu behar zirela.

Kezka horri erantzun nahian, irakasle elebidun batzuk talde trinko eta homogeneo bat eratzen joan dira, Zuzenbidearen arloko hainbat diziplina biltzen dituen.

Horren harira, atsegin handia da niretzat irakasle-talde horren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzari esker sortutako liburu honen hitzaurrea egitea, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio sailburua naizen neurrian.

Lurzoruari buruzko Legea adostasunean oinarritutako lege-testua da. Gure autonomia-erkidegoan euskara lehentasunezko komunikazio-hizkuntza duten eremu juridikoak arautu nahi dira horren bidez, eta, horregatik, hain zuzen, behar-beharrezkoa da funtsezko araudia euskaratzea. Gure herrialdean garrantzi handiko gaia dugu hau, eta antzekotasun geografikoengatik *mutatis mutandis* baliagarri zaigu 1975eko *Land community Acten* aitzindari izan zen *Land* ingelesezko Liburu Zuritik jasotako pasarte hau: «Uharte hauetan eskuratu daitezkeen baliabide material guztien artetik, lurzorua da areagotu ezin den bakarra. Beste herrialde batzuekin ditugun merkataritza-harremenen bidez, elikagai, petrolio edo burdin mineral gehiago lortu daitezke, ugari ditugun gai edo manufaktura-produktuen truke. Lurzoruaren hornidura, ordea, zehaztuta dago eta finkoa da. Biztanleria-dentsitate handiko herrialde txikian bizi gara; beraz, lurzorua eskaintza, finkoa izateaz gainera, eskasa da. Horregatik, gure lurzorua zuzen planifikatzearen eginbeharrak garrantzi berezia du.» (Gaztelaniaz: FERNÁNDEZ, Tomás Ramón, *Manual de Derecho Urbanístico*, 16-17).

Tal y como indica el propio texto legal que hoy se presenta, la finalidad del mismo es «de un lado aclarar, regularizar y armonizar la terminología y el contenido dispositivo de ambos textos legales, y de otro, estructurar y ordenar en una única disposición general una serie de preceptos dispersos y de diferente naturaleza, procedentes del fragmentado Texto Refundido de 1992, dentro de los nuevos contenidos de la Ley de Suelo de 2007, adaptados a las competencias urbanísticas, de ordenación del territorio y de vivienda de las Comunidades Autónomas. De este modo, el objetivo final se centra en evitar la dispersión de tales normas y el fraccionamiento de las disposiciones que recogen la legislación estatal en la materia (...).

Desde una perspectiva histórica, el origen del urbanismo moderno se sitúa en las leyes del «urbanismo sanitario» del siglo XIX, tendentes, tanto a proteger a la población urbana de pestes y enfermedades, como a implantar los servicios de abastecimientos de agua potable, saneamiento, normas sobre alineación de calles, ventilación de viviendas, etc. Estas leyes surgieron por las malas condiciones de vida en las ciudades industriales.

También en este siglo aparecen algunas importantes técnicas de desarrollo urbanístico, como el ensanche, la sustitución de barrios antiguos por nuevas edificaciones, y la zonificación que comenzó a aplicarse en Alemania en 1860.

En definitiva, es en el siglo XIX cuando el urbanismo se convierte no sólo en una corriente de pensamiento científico, sino, y sobre todo, en una técnica para la distribución de los espacios públicos y privados y de los usos o actividades que en ellos pueden desarrollarse. Obviamente, estas técnicas tenían que acabar teniendo un contenido jurídico para poder ser impuestas, así que su evolución dio lugar al Derecho urbanístico actual, compuesto de normas jurídicas y figuras de planeamiento que regulan el ejercicio del derecho de propiedad y disciplinan la actividad urbanizadora y edificatoria sobre el suelo.

Esta normativa urbanística alcanza su apogeo en el siglo XX, y en España con la aprobación de diversas normas urbanísticas, las sucesivas Leyes de suelo de 1976, de 1992 y de 1998 (modificada en 2003), y la que ahora presentamos, que han establecido los parámetros básicos de los tipos de suelos y correspondientes derechos y deberes de los propietarios. Sin embargo, la aplicación práctica corresponde a las comunidades autónomas, lo que exige un desarrollo individualizado de esta rama del Derecho para cada una de ellas.

Llegando a la norma que hoy prologamos, élla misma se define en la exposición de motivos como una norma recopiladora, es decir, una forma de que el destinatario de la norma tenga claro cuál es la norma exactamente aplicable, tarea

Gaur aurkeztutako lege-testuan adierazten den moduan, «bategite-lan horrek bi helburu ditu batez ere: alde batetik, bi lege-testu horien terminologia eta xedapen-edukia argitu, erregularizatu eta harmonizatzea, eta bestetik, 1992ko Testu Bategin zatikatutik zetozen izaera desberdineko manu sakabanatuak xedapen orokor bakar batean egituratu eta ordenatzea, 2007ko Lurzoruaren Legearen eduki berrien barruan, edukiok autonomia-erkidegoen hirigintzako, lurralde-antolamenduko eta etxebizitza-arloko eskumenetara egokitu direlarik. Hala, azken helburua, nagusiki, hau da: arau horien sakabaketa eta arlo horretako estatuko legeria jasotzen duten xedapenen zatiketa eragozte, (...).

Historiaren ikuspegitik, hirigintza modernoaren jatorria XIX mendeko «osasan-hirigintzari» buruzko legeetan dago. Horien bidez, alde batetik, hiriko biztanleak izurrite eta gaixotasunetatik babestu nahi ziren, eta, bestetik, edateko uraren hornidura nahiz saneamendu-zerbitzuak ezarri, eta kaleak lerrokatzeari, etxebizitzaren aireztatzeari eta abarri buruzko arauak finkatu. Lege horiek hiri industrialen bizi-baldintza txarren eraginez sortu ziren.

Mende horretan sortu ziren, orobat, hirigintzako garapen-teknika garrantzitsuak; esate baterako, zabaltzeak, auzo zaharrak eraikin berrien bitartez ordezkatzeko prozesuak eta 1860an Alemanian aplikatzen hasi ziren zonakatzak.

Azken finean, XIX. mendean bihurtu zen hirigintza, pentsamendu-korronte zientifiko ez ezik, eremu publiko nahiz pribatuak banatzeko eta horietan egin daitezkeen jarduerak edo erabilerak zehazteko teknika, batik bat. Jakina, teknika hori ezarri ahal izateko ezinbestekoa zen eduki juridikoa izatea; beraz, bilakaera horren emaitza gisa sortu zen gaur egungo hirigintza-zuzenbidea, arau juridikoek eta plangintzako figurek osatua. Horien bidez, jabetza-eskubidea baliatzea arautu, eta lurzoruaren gaineko urbanizatzeko eta eraikitze- jardueran diziplina jarri zen.

Hirigintzako araudi hori XX. mendean iritsi zen gorenera, eta Espainian, berriz, hirigintzako zenbait arau onestean: hurrenez hurren, 1976, 1992 eta 1998ko Lurzoruari buruzko Legeak (1998koa 2003an aldatua) eta orain aurkeztu dugun lege hau, horien bidez ezarri baitira lurzoru motei buruzko oinarritzko parametroak eta jabeen eskubide zein betebeharrak. Hala ere, horien aplikazioa autonomia-erkidegoei dagokie, eta horrek Zuzenbideko adar honen garapen banan-banakoa eskatzen du erkidego bakoitzarentzat.

Gaur hitzaurre hau egiten diogun araura iritsita, arau-biltzaile gisa definituta ageri zaigu bera zioen azalpenean; hau da, zehazki aplikatu beharreko araua zein den garbi jakiteko modu bat da arau-hartzailearentzat, lan hori bereziki

especialmente difícil en un sector como el del urbanismo. Esta norma busca «de un lado aclarar, regularizar y armonizar la terminología y el contenido dispositivo de ambos textos legales, y de otro, estructurar y ordenar en una única disposición general una serie de preceptos dispersos y de diferente naturaleza, procedentes del fragmentado Texto Refundido de 1992, dentro de los nuevos contenidos de la Ley de Suelo de 2007, adaptados a las competencias urbanísticas, de ordenación del territorio y de vivienda de las Comunidades Autónomas».

Sin más, no me queda sino agradecer nuevamente al grupo de profesores que en la Universidad del País Vasco se dedican a estas tareas de traducción de textos legales, y confiar, y desde luego esa es la voluntad decidida de este Gobierno, en continuar esta dinámica de incorporación de textos legales en euskera a nuestro ordenamiento jurídico.

Idoia MENDIA CUEVA  
Consejera de Justicia y Administración Pública

zaila baita hirigintzako sektorean. Arau honek bi helburu ditu «alde batetik, bi lege-testu horien terminologia eta xedapen-educia argitu, erregularizatu eta harmonizatzea, eta bestetik, 1992ko Testu Bategin zatikatutik zetozen izaera desberdineko manu sakabanatuak xedapen orokor bakar batean egituratu eta ordenatzea, 2007ko Lurzoruaren Legearen eduki berrien barruan, edukiok autonomia-erkidegoen hirigintzako, lurralde-antolamenduko eta etxebizitza-arloko eskumenetara egokitu direlarik.».

Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkiot, berriro ere, lege-testuen itzulpen-gintzan diharduen Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle-taldeari, eta espero dut, eta horixe da Gobernu honek adierazitako borondatea, euskarazko lege-testuak gure antolamendu juridikoan txertatzeko dinamikari jarraipena ematea aurrerantzean ere.

Idoia MENDIA CUEVA  
Justizia eta Herri Administrazio sailburua





# Lurzoruari buruzko Legea eta hirigintza

2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, lurzoruari buruzko legearen testu bategina, euskarara itzultzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Ezin dugu ahaztu Espainiako estatu osoan dela aplikagarri, nahiz eta testuaren artikulua guztiak aplikazio-maila bera ez izan: batzuk, oinarri izaera dute eta, ondorioz, autonomia-erkidegoko hirigintza-legegileari esku ematen zaio haiek garatzeko; beste batzuk, ordea, zuzenean aplikatuko dira.

Legegilearen esanetan, esku artean dugun testu bategina ez da hirigintzari buruzko lege bat. Honela dio legeak: *«Hau ez da hirigintza-lege bat, baizik eta lurzoruaaren araubideari eta lurzoruari loturiko konstituzio-eskubideak —Konstituzioak beren kudeaketa Estatuari esleitzen dion interesei dagokienez— berdintasunez baliatzeari buruzko lege bat»*. Ez al da harrigarria Legeak, lehendabizi, zer gai arautzen duen esan beharrean, legea zer ez den adieraztea?

Idea horri jarraituz —ez da hirigintza-legea— Legearen Zioen Azalpenean argi geratzen da autonomia-erkidegoei dagokiela beren politikak diseinatzea eta garatzea hirigintza-arloan, eta Estatuari, berriz, gaiarekin zerikusia duten zenbait eskumen baliatzea, baina, ahal dela, gaia baldintzatu gabe. Bestalde, legegileak argi adierazten du, lehen aldiz, alde batera uzten duela berariaz hirigintzakoak diren teknika batzuk arautzea, hala nola plan motak edo lurzoru motak, eta saihestu haiei dagozkien teknizismoak erabiltzea.

Lehen ondorio bezala esan daiteke legegilearen adierazpenetan obsesio bat nabarmentzen dela: autonomia-erkidegoentzat gordetzea lurralde-antolamendu, hirigintza eta etxebizitzari buruz esleitutako eskumen eksklusiboak eta, bereziki, lurzoru-ondare publikoei buruz esleitutakoak.

Baina askotan gertatzen den bezala, legegileak azaldutako borondatea eta Legeak arautzen duena ez datoz bat. Nahiz eta hirigintzakoak diren teknikak edo

plan motak eta haiei dagozkien teknizismoak erabiltzea saihestu, lege honek erabat baldintzatzen du orain arte «hirigintza» kontzeptuaren atzean ulertu izan duguna.

Bestalde, Legea egiteko azaltzen diren arrazoiak bidezkotzat jo daitezke. Haien artean aipa daitezke landa-lurraren protagonismoa berreskuratzea, lurzoru-sailkapena kontutan ez hartzea lurzoria balioesteko lege-irizpideak finkatzera-koan eta, jabetzaz gain, beste eskubide konstituzional batzuk ere kontutan hartzea, hala nola herritarrek arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea, enpresa-askatasunarena, ingurumen egokia izateko eskubidea eta, batez ere, etxebizitza duin eta orobat egokia izateko eskubidea. Azkenik, Legea garapen iraunkorraren alde azaltzen da. Hirigintza garaikidea hiri berria sortzeari emana izan bada batik bat, egun hirigintzak garapen iraunkorraren eskakizunei erantzun behar die; hazkunderen inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin, egungo hiria birsortzearen alde apustu egin beharra azaltzen du.

Aipaturiko helburu jakin horiek lortzearen, Legeak zenbait gai arautzen ditu; horien artean, lurzoruaren araubideak eragiten dien subjektuen eskubide eta betebeharren estatutua; alde batetik, hiritarren eskubide eta betebeharrak, lurzoruari eta etxebizitzari dagokionez; bestetik, ekimen pribatuak hirigintzaren aurrean dituen eskubide eta betebeharrak eta, azkenik, lurzoruaren jabetzaren estatutua. Bigarrenik, gutxieneko estandar batzuk ezartzen ditu; adibidez, etxebizitza babestuak egiteko bizitegi-lurzoria erreserbatzeari buruzkoa. Bestalde, lurzoruaren sailkapena alde batera utzita, lurzoruaren bi egoera aurreikusten ditu. Egoerari dagokionez, lurzoria landa-lurra izan daiteke, hiriaren bilbean funtzionalki integraturik ez dagoena, edo urbanizatutako lurra, hirigintzak benetan eta modu egokian eraldatu duena.

Lurzoruaren bereizketa hori erabakigarria izango da une bakoitzean lurzoru jakin baten balioespina finkatzeko. Urbanizatutako lurzorian bakarrik hartuko da kontutan bere hirigintza-erabilera, erabilera hori errealitate bihurtuta baitago. Landa-lurrean, hirigintza-itxarokizun edo -espektatibak ez dira balioespenean barneratuko.

Esan genezake lege hau bi printzipiotan oinarritzen dela; alde batetik, jabe izateak ez du urbanizatzeko eskubiderik ematen, hau da, lurzoria urbanizatzeari zerbitzu publiko bihurtzen da, eta bestetik, lurzoruaren balioespina haren egoeraren arabera izango da eta ez plangintzak aurreikusitako xedearen arabera. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago legegilea ez zaiela erabat leial izan printzipio horiei. Lurzoria urbanizatzea zerbitzu publiko bat baldin bada, zergatik utzi autonomia-erkidegoetako legegileen esku urbanizatzeari lanak ekimen pribatuarentzat gordetzeko aukera? Eta bestetik, lurzoruaren sailkapena

eta haren balioespena erabat banatzea oso zaila izango da. Legeak nahi duena esan dezake, baina hirigintza-planek hiria nondik nora haziko den aurreikusi behar dute eta horrek beti izanen du eragina merkatuan.

Nolanahi ere, eta gure iruzkinak gorabehera, denbora izango da aurreikuspen horien guztien bilakaeraren testigu.

CARMEN AGOUÉS MENDIZÁBAL  
JASONE URKOLA IRIARTE



2/2008 LEGEGINTZAKO ERREGE  
DEKRETUA, EKAINAREN 20KOA,  
LURZORUARI BURUZKO LEGEAREN  
TESTU BATEGINA ONESTEN DUENA

---

REAL DECRETO LEGISLATIVO 2/2008,  
DE 20 DE JUNIO, POR EL QUE  
SE APRUEBA EL TEXTO REFUNDIDO  
DE LA LEY DE SUELO

## I

La Disposición final segunda de la Ley 8/2007, de 28 de mayo, de Suelo, delegó en el Gobierno la potestad de dictar un Real Decreto Legislativo que refundiera el texto de ésta y los preceptos que aún quedaban vigentes del Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, por el que se aprobó el Texto Refundido de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana. El plazo para la realización de dicho texto era de un año, a contar desde la entrada en vigor de aquélla.

Dicha tarea refundidora, que se afronta por medio de este texto legal, se plantea básicamente dos objetivos: de un lado aclarar, regularizar y armonizar la terminología y el contenido dispositivo de ambos textos legales, y de otro, estructurar y ordenar en una única disposición general una serie de preceptos dispersos y de diferente naturaleza, procedentes del fragmentado Texto Refundido de 1992, dentro de los nuevos contenidos de la Ley de Suelo de 2007, adaptados a las competencias urbanísticas, de ordenación del territorio y de vivienda de las Comunidades Autónomas. De este modo, el objetivo final se centra en evitar la dispersión de tales normas y el fraccionamiento de las disposiciones que recogen la legislación estatal en la materia, excepción hecha de la parte vigente del Real Decreto 1346/1976, de 9 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, que tiene una aplicación supletoria salvo en los territorios de las Ciudades de Ceuta y Melilla y, en consecuencia, ha quedado fuera de la delegación legislativa por cuya virtud se dicta este Real Decreto Legislativo.

## II

Como recuerda la Exposición de Motivos de la Ley 8/2007, de 28 de mayo, de Suelo, la historia del Derecho urbanístico español contemporáneo se forjó en la segunda mitad del siglo XIX, en un contexto socio-económico de industrialización y urbanización, en torno a dos grandes tipos de operaciones urbanísticas: el ensanche y la reforma interior, la creación de nueva ciudad y el saneamiento y la reforma de la existente. Dicha historia cristalizó a mediados del siglo XX con la primera ley completa en la materia, de la que sigue siendo tributaria nuestra tradición posterior. En efecto, las grandes instituciones urbanísticas actuales conservan una fuerte inercia respecto de las concebidas entonces: la clasificación del suelo como técnica por excelencia de la que se valen tanto la ordenación como la ejecución urbanísticas, donde la clase de urbanizable es la

## I

Lurzoruari buruzko 2007ko maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen amaierako bigarren xedapenak legegintzako errege-dekretu bat emateko ahala eskuordetu zion Gobernuari, haren bitartez batzeko lege haren testua eta Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuen 1992ko ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretutik artean indarrean zeuden manuak. Testu hori egiteko epea urtebetekoa zen, hura indarrean sartzen zenetik kontatzen hasita.

Lege-testu honen bidez egiten den bategite-lan horrek bi helburu ditu batez ere: alde batetik, bi lege-testu horien terminologia eta xedapen-edukia argitu, erregularizatu eta harmonizatzea, eta bestetik, 1992ko Testu Bategin zatikatutik zetozen izaera desberdineko manu sakabanatuak xedapen orokor bakar batean egituratu eta ordenatzea, 2007ko Lurzoruari buruzko Legearen eduki berrien barruan, edukiok autonomia-erkidegoen hirigintzako, lurralde-antolamenduko eta etxebizitza-arloko eskumenetara egokitu direlarik. Hala, azken helburua, nagusiki, hau da: arau horien sakabanaketa eta arlo horretako estatuko legeria jasotzen duten xedapenen zatiketa eragozte, alde batera utzirik Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen 1976ko apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretutik indarrean den partea, hura ordeztaille gisa aplikatzen baita Ceuta eta Melillako hirietako lurraldeetan izan ezik, eta, horren ondorioz, Legegintzako Errege Dekretu hau emateko legegintza-eskuordetzatik kanpo geratu baita.

## II

Lurzoruari buruzko 2007ko maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen Zioen Azalpenean gogoratzen denez, Espainiako gaur egungo hirigintza-zuzenbidearen historia XIX. mendearen bigarren erdian hasi zen eratzten, industrializazioa eta urbanizazioa nagusi ziren testuinguru sozio-ekonomiko batean, hirigintzako bi eragiketa mota handion inguruan: hirigunearen zabaltzea eta barne-erreforma; hiri berria sortzea eta lehendik zegoena saneatzea eta eraberritzea. Historia hori XX. mendearen erdialdera hezurmamitu zen, gai honi buruz egin zen lehenengo lege osoarekin, eta haren zordun da harrezkero dugun tradizioa. Hain zuzen, gaur egungo hirigintza-instituzio handiek inertzia handia dute garai hartan sortuekiko: lurzoruaren sailkapena da teknika nagusia, eta horretaz baliatzen dira hirigintzaren bai antolamendua eta bai exekuzioa —horietan, mota urba-

verdadera protagonista y la del suelo rústico o no urbanizable no merece apenas atención por jugar un papel exclusivamente negativo o residual; la instrumentación de la ordenación mediante un sistema rígido de desagregación sucesiva de planes; la ejecución de dichos planes prácticamente identificada con la urbanización sistemática, que puede ser acometida mediante formas de gestión pública o privada, a través de un conjunto de sistemas de actuación.

Desde entonces, sin embargo, se ha producido una evolución capital sobre la que debe fundamentarse esta Ley, en varios sentidos.

En primer lugar, la Constitución de 1978 establece un nuevo marco de referencia para la materia, tanto en lo dogmático como en lo organizativo. La Constitución se ocupa de la regulación de los usos del suelo en su artículo 47, a propósito de la efectividad del derecho a la vivienda y dentro del bloque normativo ambiental formado por sus artículos 45 a 47, de donde cabe inferir que las diversas competencias concurrentes en la materia deben contribuir de manera leal a la política de utilización racional de los recursos naturales y culturales, en particular el territorio, el suelo y el patrimonio urbano y arquitectónico, que son el soporte, objeto y escenario necesario de aquéllas al servicio de la calidad de vida. Pero además, del nuevo orden competencial instaurado por el bloque de la constitucionalidad, según ha sido interpretado por la doctrina del Tribunal Constitucional, resulta que a las Comunidades Autónomas les corresponde diseñar y desarrollar sus propias políticas en materia urbanística. Al Estado le corresponde a su vez ejercer ciertas competencias que inciden sobre la materia, pero debiendo evitar condicionarla en lo posible.

Aunque el legislador estatal se ha adaptado a este orden, no puede decirse todavía que lo haya asumido o interiorizado plenamente. En los últimos años, el Estado ha legislado de una manera un tanto accidentada, en parte forzado por las circunstancias, pues lo ha hecho a caballo de sucesivos fallos constitucionales. Así, desde que en 1992 se promulgara el último Texto Refundido Estatal de la Ley sobre Régimen de Suelo y Ordenación Urbana, cuyo contenido aún vigente, se incorpora a éste texto, se han sucedido seis reformas o innovaciones de diverso calado, además de las dos operaciones de «legislación negativa» en sendas Sentencias Constitucionales, las número 61/1997 y 164/2001. No puede decirse que tan atropellada evolución —ocho innovaciones en doce años— constituya el marco idóneo en el que las Comunidades Autónomas han de ejercer sus propias competencias legislativas sobre ordenación del territorio, urbanismo y vivienda.

Esta situación no puede superarse añadiendo nuevos retoques y correcciones, sino mediante una renovación más profunda plenamente inspirada en los



nizagarria da benetako protagonista eta landa-lurzoruak edo urbanizaezinak ez du merezi ia arretarik, betekizun negatiboa edo hondar-mailakoa duelako—; antolamendua planak mailakatzeko sistema zurrun bat ezarri eratzea; gauza ia berdintzat hartzea plan horien exekuzioa eta urbanizatzeko sistematikoa, zeina kudeaketa publikoaren edo pribatuaren bidez aurrera eraman baitaiteke, jarduketa-sistema multzo baten bitartez.

Orduz geroztik, ordea, bilakaera handi bat gertatu da eta haren gainean oinarritu behar du Lege honek, zentzu bat baino gehiagotan.

Lehenik, 1978ko Konstituzioak erreferentzia-esparru berria ezartzen du gai honetarako, hala alderdi dogmatikoari nola antolakuntzari dagokionez. Konstituzioa lurzoruaren erabilerak arautzeaz arduratzen da 47. artikuluan, etxebizitza-eskubidea gauzatea dela eta, eta 45. artikulutik 47.era artekoek eratzen duten ingurumen-arauen multzoaren barruan. Horietatik ondoriozta daiteke gai honetako eskumen konkurrenteek leialki lagundu behar dutela baliabide natural eta kulturalak modu arrazoizkoan erabiltzeko politikan; bereziki lurraldea, lurzoru eta hiri- eta arkitektura-ondarea erabiltzekoan, baliabide horiek baitira eskumen haien ezinbesteko euskarri, objektu eta gertaleku, bizi-kalitatearen zerbitzura. Baina, gainera, konstituzionaltasun-blokeak ezarritako eskumen-ordena berritik —hala interpretatu baitu Konstituzio Auzitegiaren doktrinak— ondorioztatzen da ezen Autonomia Erkidegoei dagokiela beren politikak diseinatzea eta garatzea hirigintza-arloan. Estatuari dagokio, berriz, gaiarekin zerikusia duen zenbait eskumen baliatzea, baina, ahal dela, gaia baldintzatu gabe.

Estatuko legegilea ordena horri egokitu bazaio ere, oraindik ez dago esaterik erabat barneratu edo bereganatu duenik. Azken urteotan, Estatuak modu gorabeheratsu samarrean egin ditu legeak, partez inguruabarrek hartara behar turik, tartean Konstituzio Auzitegiaren zenbait epaitza izan baitira, eta bata bestearen ondotik haietan oinarritu beharra. Hala, 1992an Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen azken Testu Bategin Estatala eman zenez geroztik —oraindik indarrean den haren edukia testu honetara biltzen da—, munta desberdineko sei aldaketa edo berritze etorri dira, bai eta «legegintza negatiboko» bi eragiketak ere Konstituzio Auzitegiaren epai banatan, 61/1997 eta 164/1997 zenbakikoetan hurrenez hurren. Ez dago esaterik itsumustuko bilakaera hori —zortzi berritze hamabi urtean— inguru egokiena denik autonomia-erkidegoek lurralde-antolamendu, hirigintza eta etxebizitzaren inguruan dituzten legegintza-eskumenak baliatzeko.

Egoera hau ezin da gainditu beste ukitu eta zuzenketa batzuk erantsiz: berrikuntza sakonago bat behar du, lehen aipatutako konstituzio-balio eta

valores y principios constitucionales antes aludidos, sobre los que siente unas bases comunes en las que la autonomía pueda coexistir con la igualdad. Para ello, se prescinde por primera vez de regular técnicas específicamente urbanísticas, tales como los tipos de planes o las clases de suelo, y se evita el uso de los tecnicismos propios de ellas para no prefigurar, siquiera sea indirectamente, un concreto modelo urbanístico y para facilitar a los ciudadanos la comprensión de este marco común. No es ésta una Ley urbanística, sino una Ley referida al régimen del suelo y la igualdad en el ejercicio de los derechos constitucionales a él asociados en lo que atañe a los intereses cuya gestión está constitucionalmente encomendada al Estado. Una Ley, por tanto, concebida a partir del deslinde competencial establecido en estas materias por el bloque de la constitucionalidad y que podrá y deberá aplicarse respetando las competencias exclusivas atribuidas a las Comunidades Autónomas en materia de ordenación del territorio, urbanismo y vivienda y, en particular, sobre patrimonios públicos de suelo.

Con independencia de las ventajas que pueda tener la técnica de la clasificación y categorización del suelo por el planeamiento, lo cierto es que es una técnica urbanística, por lo que no le corresponde a este legislador juzgar su oportunidad. Además, no es necesaria para fijar los criterios legales de valoración del suelo. Más aún, desde esta concreta perspectiva, que compete plenamente al legislador estatal, la clasificación ha contribuido históricamente a la inflación de los valores del suelo, incorporando expectativas de revalorización mucho antes de que se realizaran las operaciones necesarias para materializar las determinaciones urbanísticas de los poderes públicos y, por ende, ha fomentado también las prácticas especulativas, contra las que debemos luchar por imperativo constitucional.

En segundo lugar, esta Ley abandona el sesgo con el que, hasta ahora, el legislador estatal venía abordando el estatuto de los derechos subjetivos afectados por el urbanismo. Este reduccionismo es otra de las peculiaridades históricas del urbanismo español que, por razones que no es preciso aquí desarrollar, reservó a la propiedad del suelo el derecho exclusivo de iniciativa privada en la actividad de urbanización. Una tradición que ha pesado sin duda, desde que el bloque de constitucionalidad reserva al Estado el importante título competencial para regular las condiciones básicas de la igualdad en el ejercicio de los derechos y el cumplimiento de los deberes constitucionales, pues ha provocado la simplista identificación de tales derechos y deberes con los de la propiedad. Pero los derechos constitucionales afectados son también otros, como el de participación ciudadana en los asuntos públicos, el de libre empresa, el derecho a un medio ambiente adecuado y, sobre todo, el derecho a una vivienda digna y asimismo adecuada, al que la propia Constitución vincula directamente con la regulación de los usos del suelo en su artículo 47. Luego, más allá de regular las

-printzipioetan erabat inspiratua, horien gainean oinarri erkideak finkatuz autonomia eta berdintasuna elkarrekin izateko moduan. Horretarako, alde batera uzten da, lehen aldiz, berariaz hirigintzakoak diren teknika batzuk arautzea, hala nola plan motak edo lurzoru motak, eta saihestu haiei dagozkien teknizismoak erabiltzea, ez dadin aldez aurretik irudikatu, ezta zeharka ere, hirigintza eredu jakin bat, eta herritarrek errazago uler dezaten esparru erkide hau. Hau ez da hirigintza-lege bat, baizik eta lurzoruaren araubideari eta lurzoruari loturiko konstituzio-eskubideak —Konstituzioak beren kudeaketa Estatuari esleitzen dion interesei dagokienez— berdintasunez baliatzeari buruzko lege bat. Beraz, konstituzionaltasun-blokeak gai horietan ezarritako eskumen-mugarritzatetik abiatuak pentsatutako lege bat da, autonomia-erkidegoei lurralde-antolamendu, hirigintza eta etxebizitzaz eta, bereziki, lurzoru-ondare publikoei buruz esleitutako eskumen esklusiboak gordez aplikatu ahal izango eta beharko dena.

Lurzorua plangintza bidez sailkatzeko eta kategoriatan banatzeko teknikak izan ditzakeen abantailak gorabehera, teknika hori hirigintza-teknika bat da, izan, eta ez dagokio legegile honi haren egokitasuna epaitzea. Gainera, teknika hori ez da beharrezkoa lurzoria balioesteko lege-irizpideak finkatzeko. Are gehiago, ikuspegi jakin horretatik, zeina estatuko legegileari baitagokio osorik, sailkapenak lurzoruaren balioen inflazioari lagundu dio historikoki, eta lurzoruaren balioa handitzeko itzarokizunak sortu ditu botere publikoek hirigintza-arloan hartutako erabakiak gauzatzeko beharrezko eragiketarik egin baino askoz lehenago. Beraz, espekulazio-jokabideak ere sustatu ditu, eta haien kontra egin beharra dugu, Konstituzioak hala agindurik.

Bigarren, lege honek alde batera uzten du estatuko legegileak, orain arte, hirigintzak ukituriko eskubide subjektiboen estatutuari heltzean zuen joera. Erredukzionismo hori da Espainiako hirigintzaren beste berezitasun historiko bat. Izan ere, Espainiako hirigintzak, hemen azaldu beharrik ez dagoen arrazoiak direla medio, lurzoruaren jabetzarentzat gorde zuen ekimen pribatuaren eskubide esklusiboa urbanizatzeko-jardueran. Tradizio horrek pisu handia izan du, ez bairik gabe, konstituzionaltasun-blokeak Konstituzioko eskubideak baliatzean eta eginbeharrak betetzean izan behar den berdintasunaren oinarritzko baldintzak arautzeko eskumen-titulu garrantzitsua Estatuarentzat gorde zuenetik, zeren berekin ekarri baitu eskubide eta eginbehar horiek, ikuspegi sinplista batez, jabetzarekin identifikatzea. Baina beste konstituzio-eskubide batzuk ere ukiturik daude, hala nola herritarrek gai publikoetan parte hartzeko dutena, enpresa-askatasunarena, ingurumen egokia izateko eskubidea eta, batez ere, etxebizitza duin eta orobat egokia izateko eskubidea, zeina Konstituzioak berak zuzenean lurzoruaren erabileren arauketaekin lotzen baitu 47. artiku-

condiciones básicas de la igualdad de la propiedad de los terrenos, hay que tener presente que la ciudad es el medio en el que se desenvuelve la vida cívica, y por ende que deben reconocerse asimismo los derechos mínimos de libertad, de participación y de prestación de los ciudadanos en relación con el urbanismo y con su medio tanto rural como urbano. En suma, la Ley se propone garantizar en estas materias las condiciones básicas de igualdad en el ejercicio de los derechos y el cumplimiento de los deberes constitucionales de los ciudadanos.

En tercer y último lugar, la del urbanismo español contemporáneo es una historia desarrollista, volcada sobre todo en la creación de nueva ciudad. Sin duda, el crecimiento urbano sigue siendo necesario, pero hoy parece asimismo claro que el urbanismo debe responder a los requerimientos de un desarrollo sostenible, minimizando el impacto de aquel crecimiento y apostando por la regeneración de la ciudad existente. La Unión Europea insiste claramente en ello, por ejemplo en la Estrategia Territorial Europea o en la más reciente Comunicación de la Comisión sobre una Estrategia Temática para el Medio Ambiente Urbano, para lo que propone un modelo de ciudad compacta y advierte de los graves inconvenientes de la urbanización dispersa o desordenada: impacto ambiental, segregación social e ineficiencia económica por los elevados costes energéticos, de construcción y mantenimiento de infraestructuras y de prestación de los servicios públicos. El suelo, además de un recurso económico, es también un recurso natural, escaso y no renovable. Desde esta perspectiva, todo el suelo rural tiene un valor ambiental digno de ser ponderado y la liberalización del suelo no puede fundarse en una clasificación indiscriminada, sino, supuesta una clasificación responsable del suelo urbanizable necesario para atender las necesidades económicas y sociales, en la apertura a la libre competencia de la iniciativa privada para su urbanización y en el arbitrio de medidas efectivas contra las prácticas especulativas, obstructivas y retenedoras de suelo, de manera que el suelo con destino urbano se ponga en uso ágil y efectivamente. Y el suelo urbano —la ciudad ya hecha— tiene asimismo un valor ambiental, como creación cultural colectiva que es objeto de una permanente recreación, por lo que sus características deben ser expresión de su naturaleza y su ordenación debe favorecer su rehabilitación y fomentar su uso.

### III

El Título preliminar de la Ley se dedica a aspectos generales, tales como la definición de su objeto y la enunciación de algunos principios que la vertebran, de acuerdo con la filosofía expuesta en el apartado anterior.

luan. Gero, lurren jabetzaren berdintasunaren oinarrizko baldintzak arautzeaz gainera, kontuan izan behar da hiria dela jendarteko bizitzaren ingurunea, eta, beraz, aitortu behar direla halaber herritarrek hirigintzari dagokionez eta beren inguruneari —landa- nahiz hiri-inguruneari— dagokionez dituzten askatasun, parte-hartze eta prestazioetarako eskubide gutxieneoak. Laburbilduz, Legeak gai hauetan Konstituzioko eskubideak baliatzeko eta eginbeharrak betetzeko herritarren berdintasun-baldintza oinarrizkoak bermatzea du xede.

Hirugarren eta azkenik, Espainiako hirigintza garaikidearen historia historia desarrollista da, hiri berria sortzeari emana batik bat. Zalantzarik gabe, hirihazkundera beharrezkoa da oraindik ere, baina gaur egun argi dago, halaber, hirigintzak garapen iraunkorraren eskakizunei erantzun behar diela, hazkunderaren inpaktua ahalik eta gehien gutxituz eta egungo hiria ernaberritzearen alde apustu eginez. Europar Batasunak argi eta garbi azpimarratu du hori, adibidez Europar Lurralde Estrategian, edota, berrikiago, Hiri Ingurumenerako Gaikako Estrategiari buruzko Batzordeak emandako komunikazioan. Horretarako, hiri trinkoa proposatzen du eredutzat, eta urbanizazio sakabanatu edo antolatu gabearen gaitz larriez ohartarazten: ingurumenean duen eragina, gizarte-bereizketa eta efizientzia ekonomikorik eza, hain handiak izanik energiaren, azpiegiturak eraiki eta mantentzearen eta zerbitzu publikoak ematearen kostuak. Lurzorua, baliabide ekonomikoa izateaz gainera, baliabide naturala ere bada, urria eta berriztaezina. Ikuspuntu horretatik, landa-lurzoru orok badu kontuan hartzea merezi duen ingurumen-balio bat, eta lurzoruaren liberalizazioa ezin da oinarritu bereizkuntzarik gabeko sailkapen batean, baizik eta, ontzat emanik badela beharizan ekonomiko eta sozialei erantzuteko behar den lurzoru urbanizagarriaren sailkapen ardurazko bat, alde batetik, lurra urbanizatzeko ekimen pribatua lehia libreria irekitzean, eta, bestetik, espekulazio-jokabide oztopatzaile eta lurzoru-atxikitzaileak eragozteko neurri eraginkorrak ematean, hiri-lurzorutarako den lurzoru bizkor eta egiazki erabiltzen has dadin. Eta hiri-lurzoruak ere —dagoeneko egina dagoen hiriak ere— ingurumen-balio bat badu, etengabe birsortzen ari den kulturarsorkuntza kolektiboa denez, eta hortaz, haren ezaugarriek haren izatearen adierazgarri izan behar dute eta haren antolamenduak haren birgaikuntza bultzatu behar du eta haren erabilera sustatu.

### III

Legearen Atariko tituluak alderdi orokorrak hartzen ditu; besteak beste, legearen objektua definitzen du, eta legearen ardatz diren zenbait printzipio adierazten, aurreko atalean azaldutako filosofiaren arabera.

## IV

Por razones tanto conceptuales como competenciales, la primera materia específica de que se ocupa la Ley es la del estatuto de derechos y deberes de los sujetos afectados, a los que dedica su Título I, y que inspiran directa o indirectamente todo el resto del articulado. Con este objeto, se definen tres estatutos subjetivos básicos que cabe percibir como tres círculos concéntricos:

Primero, el de la ciudadanía en general en relación con el suelo y la vivienda, que incluye derechos y deberes de orden socio-económico y medioambiental de toda persona con independencia de cuáles sean su actividad o su patrimonio, es decir, en el entendimiento de la ciudadanía como un estatuto de la persona que asegure su disfrute en libertad del medio en el que vive, su participación en la organización de dicho medio y su acceso igualitario a las dotaciones, servicios y espacios colectivos que demandan la calidad y cohesión del mismo.

Segundo, el régimen de la iniciativa privada para la actividad urbanística, que —en los términos en que la configure la legislación urbanística en el marco de esta Ley— es una actividad económica de interés general que afecta tanto al derecho de la propiedad como a la libertad de empresa. En este sentido, si bien la edificación tiene lugar sobre una finca y accede a su propiedad —de acuerdo con nuestra concepción histórica de este instituto—, por lo que puede asimismo ser considerada como una facultad del correspondiente derecho, la urbanización es un servicio público, cuya gestión puede reservarse la Administración o encomendar a privados, y que suele afectar a una pluralidad de fincas, por lo que excede tanto lógica como físicamente de los límites propios de la propiedad. Luego, allí donde se confíe su ejecución a la iniciativa privada, ha de poder ser abierta a la competencia de terceros, lo que está llamado además a redundar en la agilidad y eficiencia de la actuación.

Tercero, el estatuto de la propiedad del suelo, definido —como es tradicional entre nosotros— como una combinación de facultades y deberes, entre los que ya no se cuenta el de urbanizar por las razones expuestas en el párrafo anterior, aunque sí el de participar en la actuación urbanizadora de iniciativa privada en un régimen de distribución equitativa de beneficios y cargas, con las debidas garantías de que su participación se basa en el consentimiento informado, sin que se le puedan imponer más cargas que las legales, y sin perjuicio de que el legislador urbanístico opte por seguir reservando a la propiedad la iniciativa de la urbanización en determinados casos de acuerdo con esta Ley, que persigue el progreso pero no la ruptura.

## IV

Hala kontzeptuei nola eskumenei dagozkien arrazoiengatik, Legeak jorrazten duen lehenengo berariazko gaia Legeak ukitzen dituen subjektuen eskubide eta eginbeharren estatutuarena da. Haiei eskaintzen die I. titulua eta haiek sorrarazten dituzte, zuzenean nahiz zeharka, beste artikuluko guztiak. Xede horrekin, oinarritzko hiru estatutu subjektibo definitzen dira, hiru zirkulu zentrokide gisa irudika daitezkeenak.

Lehenik, herritarrek, oro har, lurzoruari eta etxebizitzari dagokionez dutena. Estatutu horrek pertsona ororen eskubide eta eginbehar sozio-ekonomikoak eta ingurumenari dagozkionak hartzen ditu, edozein ere dela pertsona horrek duen jarduera edo ondarea. Hau da, pertsonari bizi den inguruneaz askatasunean gozatzea bermatuko dion estatututzat hartzen du herritartasuna, ingurune hori antolatzen parte hartzea eta ingurunearen kalitateak eta kohesioak eskatzen dituzten zuzkidura, zerbitzu eta espazio kolektiboak berdintasunez iristea bermatuko dion estatututzat.

Bigarren, ekimen pribatuak hirigintza-jarduerarako duen araubidea; izan ere, hirigintza-jarduera —hirigintza-legeriak lege honen esparruan arautu dezan moduan— interes orokorreko ekonomia-jarduera bat da, hala jabetza-eskubideari nola enpresa-askatasunari eragiten diena. Alde horretatik, eraikitzea finka batean egiten da eta haren jabetzan integratzen da —erakunde juridiko horretaz dugun ikuskera historikoaren arabera— eta, ondorioz, dagokion eskubidearen ahalmentzat ere har daiteke; urbanizatzea, berriz, zerbitzu publiko bat da: haren kudeaketa Administrazioak beretzat gorde dezake edo pribatuei enkargatu diezaieke; gainera, hainbat finkari eragin ohi die eta, beraz, jabetzaren berezko mugak gaintzen ditu, bai logikoki bai fisikoki. Hortaz, haren exekuzioa ekimen pribatuaren esku uzten denean, hirugarren batzuei ere eman behar zaie lehian sartzeko bidea. Horrek, gainera, jarduketaren bizkortzea eta efizientzia ekarriko ditu.

Hirugarren, lurzoruaren jabetzaren estatutua, ahalmen eta eginbeharren konbinazio gisa definitua, gure artean ohikoa denez, nahiz eta horien artean jadanik ez dagoen urbanizatzearena, aurreko paragrafoan azaldutako arrazoiengatik, baina bai, ordea, ekimen pribatuko urbanizatzeko jarduketan parte hartzearena, onura eta kargen ekitatezko banaketaren arauen barruan: parte-hartze hori jakinaren gaineko adostasunean oinarritzen dela behar bezala bermaturik, ezin ezarriko zaiolarik legezkoak baino karga gehiago; horrek ez du esan nahi hirigintza-legegileak urbanizatzeko-ekimena jabetzarentzat gorde ahal izango ez duenik zenbait kasutan, lege honen arabera, lege honek aurrerapena baitu xetatzat eta ez haustura.

Correlativos de los derechos de las personas son los deberes básicos de las Administraciones con que la Ley abre su Título II.

Los procedimientos de aprobación de instrumentos de ordenación y de ejecución urbanísticas tienen una trascendencia capital, que desborda con mucho el plano estrictamente sectorial, por su incidencia en el crecimiento económico, en la protección del medio ambiente y en la calidad de vida. Por ello, la Ley asegura unos estándares mínimos de transparencia, de participación ciudadana real y no meramente formal, y de evaluación y seguimiento de los efectos que tienen los planes sobre la economía y el medio ambiente. La efectividad de estos estándares exige que las actuaciones urbanizadoras de mayor envergadura e impacto, que producen una mutación radical del modelo territorial, se sometan a un nuevo ejercicio pleno de potestad de ordenación. Además, la Ley hace un tratamiento innovador de este proceso de evaluación y seguimiento, con el objeto de integrar en él la consideración de los recursos e infraestructuras más importantes. Esta integración favorecerá, a un tiempo, la utilidad de los procesos de que se trata y la celeridad de los procedimientos en los que se insertan.

Mención aparte merece la reserva de suelo residencial para la vivienda protegida porque, como ya se ha recordado, es la propia Constitución la que vincula la ordenación de los usos del suelo con la efectividad del derecho a la vivienda. A la vista de la senda extraordinariamente prolongada e intensa de expansión de nuestros mercados inmobiliarios, y en particular del residencial, parece hoy razonable encajar en el concepto material de las bases de la ordenación de la economía la garantía de una oferta mínima de suelo para vivienda asequible, por su incidencia directa sobre dichos mercados y su relevancia para las políticas de suelo y vivienda, sin que ello obste para que pueda ser adaptada por la legislación de las Comunidades Autónomas a su modelo urbanístico y sus diversas necesidades.

En lo que se refiere al régimen urbanístico del suelo, la Ley opta por diferenciar situación y actividad, estado y proceso. En cuanto a lo primero, define los dos estados básicos en que puede encontrarse el suelo según sea su situación actual —rural o urbana—, estados que agotan el objeto de la ordenación del uso asimismo actual del suelo y son por ello los determinantes para el contenido del derecho de propiedad, otorgando así carácter estatutario al régimen de éste. En cuanto a lo segundo, sienta el régimen de las actuaciones urbanísticas de transformación del suelo, que son las que generan las plusvalías en las que debe participar la comunidad por exigencia de la Constitución. La Ley esta-



Pertsonen eskubideekin korrelazioan daude administrazioen oinarritzko eginbeharrak, eta horiekin irekitzen du Legeak bere II. titulua.

Hirigintza antolatzeko eta exekutatzeko tresnak onesteko prozedurek berebiziko munta dute: sektorearen esparrutik askoz harantzagokoa; ekonomiaren hazkunderan, ingurumenaren babesean eta bizi-kalitatean duten eraginagatik. Horregatik, Legeak gutxieneko estandar batzuk bermatzen ditu gardentasunarako, herritarren partaidetza benetakoa izateko, eta ez forma hutsa, eta planek ekonomian eta ingurumenean dituzten eraginak ebaluatzeko eta haien jarraipena egiteko. Estandar horiek eraginkorrak izango badira, tamaina eta inpaktu handieneko urbanizatzeko-jarduketek —lurralde-ereduaren aldaketa errotikoa daktartek— berriro antolatze-ahala osorik baliatzea eskatzen dute. Gainera, Legeak modu berritzailean tratatzen du ebaluazio eta jarraipenerako prozesu hori, haren barruan sartu ahal izateko baliabide eta azpiegitura nagusiak kontuan hartzea. Integrazio horren bidez prozesuak erabilgarriagoak izango dira eta prozedurak, berriz, bizkorragoak.

Aparteko aipamena merezi du etxebizitza babestuak egiteko bizitegi-lurzoruaren erreserbak, zeren eta, gogorarazi denez, Konstituzioak berak lotzen baitu lurzoruaren erabileren antolamendua etxebizitza-eskubidea egiazki gauzatzearekin. Gure higiezin-merkatuen hedatze-bide harrigarriro luze eta bizia ikusirik, eta batez ere bizitegi-merkatuarena, arrazoizkoa dela dirudi, gaur egun, etxebizitza eskuragarriko gutxienezko lurzoru eskaintza baten bermea sartzea ekonomia-antolakuntzaren oinarrien kontzeptu materialaren barruan, merkatu horietan duen eragin zuzenagatik eta lurzoru- eta etxebizitza-politiketarako duen garrantziagatik, betiere oztopatu gabe autonomia-erkidegoetako legeek eskaintza hori beren hirigintza-eredura eta premietara egokitu ahal izatea.

Lurzoruaren hirigintza-araubideari dagokionez, izaera eta jarduera, egoera eta prozesua bereizten ditu Legeak. Lehenengoari dagokionez, lurzoruaren bi egoera oinarritzkoak definitzen ditu, hots, zer den lurzoru une jakinean: landa-lurzoru ala hiri-lurzoru. Egoera horiek ahitu egiten dute lurzoruak —hor ere, une jakinean— duen erabileraren antolamenduaren xedea, eta horregatik, erabakigarriak dira jabetza-eskubidearen edukirako; hala, izaera estatutarioa ematen diote jabetza-eskubide horren araubideari. Bigarrenari dagokionez, berriz, lurzoruaren eraldatzeko hirigintza-jarduketan araubidea finkatzen du, eta hain zuzen ere jarduketa horietatik sorturiko gainbalioak dira erkidegoaren parte-hartzea

blece, conforme a la doctrina constitucional, la horquilla en la que puede moverse la fijación de dicha participación. Lo hace posibilitando una mayor y más flexible adecuación a la realidad y, en particular, al rendimiento neto de la actuación de que se trate o del ámbito de referencia en que se inserte, aspecto éste que hasta ahora no era tenido en cuenta.

## VI

El Título III aborda los criterios de valoración del suelo y las construcciones y edificaciones, a efectos reparcelatorios, expropiatorios y de responsabilidad patrimonial de las Administraciones Públicas. Desde la Ley de 1956, la legislación del suelo ha establecido ininterrumpidamente un régimen de valoraciones especial que desplaza la aplicación de los criterios generales de la Ley de Expropiación Forzosa de 1954. Lo ha hecho recurriendo a criterios que han tenido sin excepción un denominador común: el de valorar el suelo a partir de cuál fuera su clasificación y categorización urbanísticas, esto es, partiendo de cuál fuera su destino y no su situación real. Unas veces se ha pretendido con ello aproximar las valoraciones al mercado, presumiendo que en el mercado del suelo no se producen fallos ni tensiones especulativas, contra las que los poderes públicos deben luchar por imperativo constitucional. Se llegaba así a la paradoja de pretender que el valor real no consistía en tasar la realidad, sino también las meras expectativas generadas por la acción de los poderes públicos. Y aun en las ocasiones en que con los criterios mencionados se pretendía contener los justiprecios, se contribuyó más bien a todo lo contrario y, lo que es más importante, a enterrar el viejo principio de justicia y de sentido común contenido en el artículo 36 de la vieja pero todavía vigente Ley de Expropiación Forzosa: que las tasaciones expropiatorias no han de tener en cuenta las plusvalías que sean consecuencia directa del plano o proyecto de obras que dan lugar a la expropiación ni las previsibles para el futuro.

Para facilitar su aplicación y garantizar la necesaria seguridad del tráfico, la recomposición de este panorama debe buscar la sencillez y la claridad, además por supuesto de la justicia. Y es la propia Constitución la que extrae expresamente —en esta concreta materia y no en otras— del valor de la justicia un mandato dirigido a los poderes públicos para impedir la especulación. Ello es perfectamente posible desvinculando clasificación y valoración. Debe valorarse lo que hay, no lo que el plan dice que puede llegar a haber en un futuro incierto. En consecuencia, y con independencia de las clases y categorías urbanísticas de suelo, se parte en la Ley de las dos situaciones básicas ya

eskatzen dutenak, Konstituzioaren aginduz. Legeak ezartzen du, konstituzio-doktrinaren arabera, zer tarteren barruan finka daitezkeen partaidetza hori. Hala, errealitatera gehiago eta malgutasun handiagoz egokitzeko aukera ematen du, eta bereziki, kasuan kasuko jarduketaren edo jarduketa hartzen duen erreferentzia-eremuaren etekin garbira egokitzekoa. Alderdi hori ez da kontuan hartu orain artean.

## VI

III. tituluak lurzorua eta eraikuntzak eta eraikinak balioesteko irizpideei heltzen die, birpartzelazioak, desjabetzeak eta administrazio publikoen ondare-erantzukizuna direla eta. 1956ko Legeaz geroztik, lurzoruaren legeriak balioespenak egiteko araubide berezi bat ezarri izan du etengabe, 1954ko Nahitaezko Desjabetzearen Legearen irizpide orokorren aplikazioa ordeztzen duena. Hori egiteko erabili dituen irizpide guztiek, salbuespenik gabe, ezaugarri erkide bat izan dute: hirigintza aldetik zuen sailkapen eta kategorizaziotik abiatuta balioestea lurzorua, hau da, lurraren xedetik abiatuta, eta ez haren egiazko izaeratik. Horren bidez, batzuetan, balioespenak merkatura hurbildu nahi izan dira, pentsatuz lurzoruaren merkatuan ez dela gertatzen hutsegiterik edo espekulazio-tirabirarik, zeinen kontra egin behar baitute botere publikoek Konstituzioak hala agindurik. Bide horrek paradoxa batera zeraman, jotzen baitzen balio erreala ez zela errealitatea balioestea, baizik eta botere publikoen jarduerak sorrarazitako itxarokizun hutsak ere balioetsi behar zirela. Eta, are aipatu irizpideen bidez prezio zuzenei eutsi nahi zitzaientean ere, guztiz kontrakoari eman zitzaion bide eta, garrantzitsuagoa dena, hortik etorri zen Nahitaezko Desjabetzearen Lege zahar baina oraindik indarrean dagoenaren 36. artikulua dakarren justiziaren eta zentzu onaren printzipio zaharra lurperatzea: alegia, desjabetzeak tasatzerakoan ez direla kontuan hartu behar desjabetzea dakarten plano edo obra-proiektuaren ondorio zuzen diren gainbalioak, ez eta gerorako aurreikus daitezkeenak ere.

Legearen aplikazioa errazteko eta trafikoak beharrezko duen segurtasuna bermatzeko, egoera hau birmoldatzean erraztasuna eta argitasuna bilatu behar dira; justiziaz gainera, jakina. Eta Konstituzioak berak ateratzen du espresuki —gai jakin honetan eta ez bestetan— justiziaren baliotik agindu bat, botere publikoei zuzendua, espekulazioa galarazteko. Hori oso ondo egin daiteke sailkapena eta balioespena bereziz gero. Den hori balioetsi behar da, ez planak etorkizun balizko batean izan litekeela dioena. Ondorioz, eta hirigintzaren ikuspegitik izan daitezkeen lurzoru mota eta kategoriak alde batera utzita, aipatu bi izaera oinarrizko horiek dira abiapuntu

mencionadas: hay un suelo rural, esto es, aquél que no está funcionalmente integrado en la trama urbana, y otro urbanizado, entendiendo por tal el que ha sido efectiva y adecuadamente transformado por la urbanización. Ambos se valoran conforme a su naturaleza, siendo así que sólo en el segundo dicha naturaleza integra su destino urbanístico, porque dicho destino ya se ha hecho realidad. Desde esta perspectiva, los criterios de valoración establecidos persiguen determinar con la necesaria objetividad y seguridad jurídica el valor de sustitución del inmueble en el mercado por otro similar en su misma situación.

En el suelo rural, se abandona el método de comparación porque muy pocas veces concurren los requisitos necesarios para asegurar su objetividad y la eliminación de elementos especulativos, para lo que se adopta el método asimismo habitual de la capitalización de rentas pero sin olvidar que, sin considerar las expectativas urbanísticas, la localización influye en el valor de este suelo, siendo la renta de posición un factor relevante en la formación tradicional del precio de la tierra. En el suelo urbanizado, los criterios de valoración que se establecen dan lugar a tasaciones siempre actualizadas de los inmuebles, lo que no aseguraba el régimen anterior. En todo caso y con independencia del valor del suelo, cuando éste está sometido a una transformación urbanizadora o edificatoria, se indemnizan los gastos e inversiones acometidos junto con una prima razonable que retribuya el riesgo asumido y se evitan saltos valorativos difícilmente entendibles en el curso del proceso de ordenación y ejecución urbanísticas. En los casos en los que una decisión administrativa impide participar en la ejecución de una actuación de urbanización, o altera las condiciones de ésta, sin que medie incumplimiento por parte de los propietarios, se valora la privación de dicha facultad en sí misma, lo que contribuye a un tratamiento más ponderado de la situación en la que se encuentran aquéllos. En definitiva, un régimen que, sin valorar expectativas generadas exclusivamente por la actividad administrativa de ordenación de los usos del suelo, retribuye e incentiva la actividad urbanizadora o edificatoria emprendida en cumplimiento de aquélla y de la función social de la propiedad.

## VII

El Título IV se ocupa de las instituciones de garantía de la integridad patrimonial de la propiedad: la expropiación forzosa y la responsabilidad patrimonial. En materia de expropiación forzosa, se recogen sustancialmente las mismas reglas que ya contenía la Ley sobre Régimen del Suelo y Valoraciones,

Lege honetan: bada landa-lurzoru bat, hau da, hiriaren bilbean funtzionalki integraturik ez dagoena, eta bada beste bat, urbanizatua, halakotzat harturik urbanizazioak benetan eta modu egokian eraldatu duena. Biak balioesten dira beren izatearen arabera, bigarren kasuan bakarrik sartzen delarik izate horretan haren hirigintza-xedea, dagoeneko xede hori errealitate bihurtu baita. Ikuspuntu horretatik, xede hau dute ezarritako balioespen-irizpideek: behar adinako objektibotasun eta segurtasun juridikoz zehaztea zein den, merkatuan, higiezin bat haren egoera berean dagoen beste antzeko batekin ordeztearen balioa.

Landa-lurzoruan, alde batera uzten da konparazio-metodoa, oso gutxitan egokitzen direlako elkarrekin objektibotasuna segurtatzeko eta espekulazio-elementuak ezabatzeko beharrezko diren baldintzak, eta errenta-kapitalizazioaren metodoari jarraitzen zaio —metodo ohikoa hori ere—, baina ahaztu gabe ezen, hirigintza-itxarokizunak kontuan hartu gabe, kokapenak eragina duela lurzoru horren balioan, eta kokapen-errenta muntazko faktorea dela luraren prezioaren eraketa tradizionallean. Lurzoru urbanizatuan, balioespena egiteko ezartzen diren irizpideei esker, higiezinaren tasazioak eguneratuak dira beti, eta hori ez zuen bermatzen aurreko araubideak. Nolanahi ere, eta lurzoruaren balioa alde batera utzita, lur hori, urbanizatzea edo eraikitzea dela eta, eraldatze-prozesuan dagoenean, egindako gastu eta inbertsioen kalte-ordaina ematen da, eta, horrekin batera, hartutako arriskua ordaintzen duen arrazoizko prima bat, eta hirigintza-antolamendu eta -exekuzioaren prozesuan ulergaitzak liratekeen balioespen-gorabeherak saihesten dira. Erabaki administratibo batek urbanizatze-jarduketa bat exekutatzen parte hartzea galarazten duenean, edo jarduketa horren baldintzak aldatzen dituenean, jabeen aldetik ez-betetzerik ez dela, ahalmen horretaz gabetzea berez balioesten da, eta horrek jabeok dauden egoera modu neurtuagoan tratatzen laguntzen du. Azken batean, araubide honek, lurzoruen erabilera antolatzekeko administrazio-jarduerak ez bestek sorrarazitako itxarokizunak balioetsi gabe, bai antolamendua eta bai jabetzaren funtzio soziala betetzeko hasitako urbanizatze- edo eraikitze-jarduera ordaintzen eta sustatzen du.

## VII

IV. tituluak jabetzaren ondare-osotasuna bermatzen duten instituzioez dihardu: nahitaezko desjabetzea eta ondare-erantzukizuna. Nahitaezko desjabetzeari dagokionez, Lurzoruaren Araubideari eta Balioespenei buruzko Legeak jadanik bazeuzkan arau berak jasotzen dira funtsean; legegintza-teknikaren

traídas aquí por razones de técnica legislativa, para evitar la dispersión de las normas y el fraccionamiento de las disposiciones que las recogen. En materia de reversión y de responsabilidad patrimonial, los supuestos de una y otra se adaptan a la concepción de esta Ley sobre los patrimonios públicos de suelo y las actuaciones urbanizadoras, respectivamente, manteniéndose en lo demás también los criterios de la Ley anterior. Se introduce, además, un derecho a la retasación cuando una modificación de la ordenación aumente el valor de los terrenos expropiados para ejecutar una actuación urbanizadora, de forma que se salvaguarde la integridad de la garantía indemnizatoria sin empeñar la eficacia de la gestión pública urbanizadora.

## VIII

El Título V contiene diversas medidas de garantía del cumplimiento de la función social de la propiedad inmobiliaria. Son muchas y autorizadas las voces que, desde la sociedad, el sector, las Administraciones y la comunidad académica denuncian la existencia de prácticas de retención y gestión especulativas de suelos que obstruyen el cumplimiento de su función y, en particular, el acceso de los ciudadanos a la vivienda. Los avances en la capacidad de obrar de los diversos agentes por los que apuesta esta Ley (apertura de la iniciativa privada, mayor proporcionalidad en la participación de la Administración en las plusvalías) deben ir acompañados de la garantía de que esa capacidad se ejercerá efectivamente para cumplir con la función social de la propiedad y con el destino urbanístico del suelo que aquella tiene por objeto, ya sea público o privado su titular.

Toda capacidad conlleva una responsabilidad, que esta Ley se ocupa de articular al servicio del interés general a lo largo de todo su cuerpo: desde la responsabilidad patrimonial por el incumplimiento de los plazos máximos en los procedimientos de ordenación urbanística, a la posibilidad de sustituir forzosamente al propietario incumplidor de los plazos de ejecución, el mayor rigor en la determinación de los destinos de los patrimonios públicos de suelo o las medidas arbitradas para asegurar que se cumple ese destino aun cuando se enajenen los bienes integrantes de los patrimonios públicos de suelo.

El contenido del Título se cierra con una regulación del régimen del derecho de superficie dirigida a superar la deficiente situación normativa actual de este derecho y favorecer su operatividad para facilitar el acceso de los ciudadanos a la vivienda y, con carácter general, diversificar y dinamizar las ofertas en el mercado inmobiliario.

arrazoiengatik ekarri dira hona, arauen sakabanatzea eta arauok jasotzen dituzten xedapenen zatitzea saihesteko. Lehengoratzeari eta ondare-erantzukizunari dagokionez, bataren eta bestearen kasuak lege honek lurzoru-ondare publikoetz eta urbanizatzeko-jarduketetz duen kontzeptzioari egokitzen zaizkio, hurrenez hurren, eta beste guztian aurreko legearen irizpideei eusten zaie. Gainera, birtasatze-eskubidea sartzen da antolamenduaren aldaketa batek urbanizatzeko-jarduketa bat exekutatze desjabeturiko lurren balioa handitzen duen kasurako, halako moldez non kalte-ordainaren bermea bere osotasunean babesturik geratzen baita urbanizatzeko-kudeaketa publikoaren eraginkortasuna kolokan jarri gabe.

## VIII

V. tituluak higiezinaren jabetzaren funtzio soziala bete dadin bermatzeko zenbait neurri jasotzen ditu. Itzal handiko ahots askok salatu dute gizartetik, sektoretik, administrazioetatik eta komunitate akademikotik badirela espekulaziozko lur-erretentzio eta -kudeaketak, haren funtzioa betetzea oztopatzen dutenak; bereziki, herritarrek etxebizitzarako irispidea izatea. Eragile batzuen eta besteen eragimenean lege honek bultzatzen dituen aurrerapenez gainera (ekimen pribatua irekitzea, Administrazioak gainbalioetan duen partaidetzan proportzionaltasun handiagoa izatea), beharrezkoa da bermatzea eragimen hori egiazki baliatuko dela jabetzaren funtzio soziala betetzeko eta haren objektu den lurzoruaren hirigintza-xedea betetzeko, publikoa zein pribatua izan haren titularra.

Gaitasun orok berekin du erantzukizuna, eta lege hau erantzukizun hori interes orokorraren zerbitzuan antolatzen saiatzen da bere gorputz osoan zehar: dela hirigintza-antolamenduaren prozeduren gehienezko epeak ez betetzeagatik ondare-erantzukizuna, dela exekuzio-epeak bete ez dituen jabea nahitaez ordezteko aukera; dela lurzoru-ondare publikoaren xedea zehazteko zorrotasun handiagoa, dela xede hori betetzen dela bermatzeko neurriak, nahiz eta lurzoru-ondare publikoak osatzen dituzten ondasunak besterendu.

Tituluari buru emateko, azalera-eskubidea arautzen da, egun eskubide hori eskas araututa dagoelako. Orobat, eskubide horren eraginkortasuna areagotu nahi da herritarrek etxebizitza iristea errazteko, eta, oro har, higiezinaren merkaturako eskaintzak ugartzeko eta bizkortzeko.

## IX

Por último, el Título VI contiene una serie de preceptos que, localizados hasta ahora de manera fragmentada en el Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, por el que se aprobó el Texto Refundido de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, ha parecido razonable agrupar bajo la denominación de «Régimen Jurídico». En él se contienen las actuaciones con el Ministerio Fiscal a consecuencia de infracciones urbanísticas o contra la ordenación del territorio, las peticiones, actos y acuerdos procedentes en dichos ámbitos las posibles acciones y recursos pertinentes y las normas atinentes al Registro de la Propiedad que ya han sido objeto de desarrollo reglamentario mediante el Real Decreto 1093/1997, de 4 de julio, por el que se aprobaron las normas complementarias al Reglamento para la ejecución de la Ley Hipotecaria sobre inscripción en el Registro de la Propiedad de actos de naturaleza urbanística.

La introducción de este Título, y la de aquellos otros preceptos que habían perdido coherencia sistemática en el contenido subsistente del Real Decreto Legislativo 1/1992, que ahora la recuperan mediante su inserción donde corresponde en la estructura de la Ley 8/2007, junto a la labor de aclaración, regularización y armonización realizadas, permiten derogar ambas disposiciones generales y recuperar finalmente en un solo cuerpo legal la unidad de la legislación estatal en la materia, al amparo de lo dispuesto en la Disposición final segunda de la Ley 8/2007, de 28 de mayo, de Suelo.

En su virtud, a propuesta de la Ministra de Vivienda, de acuerdo con el Consejo de Estado y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día 20 de junio de 2008,

### DISPONGO:

Artículo único. Aprobación del Texto Refundido de la Ley de Suelo.

Se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Suelo.

Disposición adicional única. Remisiones normativas.

Las referencias normativas efectuadas en otras disposiciones al Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, por el que se aprobó el Texto Refundido de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana y a la Ley 8/2007, de 28 de mayo, de Suelo, se entenderán efectuadas a los preceptos correspondientes del Texto Refundido que se aprueba.



## IX

Azkenik, VI. tituluak baditu zenbait manu, orain arte Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuen 1992ko ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuan modu zatikatuan egonak, «Araubide Juridikoa» izenaren pean elkartu direnak, hala egitea arrazoizkoa dela iritzita. Hartan jasotzen dira hirigintza-arloko edo lurralde-antolamenduaren kontrako arau-hausteen ondorioz Fiskaltzarekin egiteko jarduketak; eremu horietan bidezko diren eskari, egintza eta erabakiak; baliatu daitezkeen akzioak eta dagozkion errekurtsioak, eta hirigintza-izaerako egintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruzko Hipoteka Legea exekutatzeke Erregelamenduaren arau osagarriak onetsi zituen 1997ko uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuaren bidez garapena izan duten Jabetza Erregistroari buruzko arauak.

Titulu hau eta 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuan irauten zuen edukian koherentzia sistematikoa galdua zuten beste manu haiek —orain, 8/2007 Legearen egituran dagokion lekuan sarturik, berriro koherentzia hori irabazi dutelarik— sartu eta gero, eta argitzen, erregularizatzen eta harmonizatzen egindako lana egin ondoren, bada aukera bi xedapen orokorrak derogatzeko eta, azkenean, lege-multzoko bakar batean biltzeko gaiaren inguruko legeria estatala, Lurzoruari buruzko 2007ko maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen amaierako bigarren xedapenean ezarritakoaren babesean.

Haren arabera, Etxebizitza ministroaren proposamenez, Estatu Kontseiluaren adostasunarekin eta Ministro Kontseiluak 2008ko ekainaren 20ko bileran egindako deliberatze-saioaren ondoren,

### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bategina onestea.

Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bategina onesten da.

Lehen xedapen gehigarria. Arauetara igortzea.

Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuen 1992ko ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuari eta Lurzoruari buruzko 2007ko maiatzaren 28ko 8/2007 Legeari beste xedapen batzuetan egindako erreferentziak, onesten den Testu Bateginaren dagozkion manuei egindakotzat ulertuko dira.

Disposición derogatoria única. Derogación normativa.

Quedan derogadas todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan al presente Real Decreto Legislativo y al Texto Refundido que aprueba y, en particular, las siguientes:

a) La Ley 8/2007, de 28 de mayo, de Suelo.

b) El Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana.

Disposición final única. Entrada en vigor.

El presente Real Decreto Legislativo y el Texto Refundido que aprueba entrarán en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial del Estado».

Dado en Madrid, el 20 de junio de 2008

JUAN CARLOS R.

La Ministra de Vivienda,  
BEATRIZ CORREDOR SIERRA

Xedapen derogatzaile bakarra. Arauak derogatzea.

Derogaturik geratzen dira Legegintzako Errege Dekretu honi eta beronek onesten duen Testu Bateginari kontra egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta, zehazki, hauek:

a) 8/2007 Legea, maiatzaren 28koa, Lurzoruari buruzko.

b) 1/1992 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 26koa, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.

Amaierako xedapen bakarra. Indarrean sartzea.

Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean Legegintzako Errege Dekretu hau eta beronek onesten duen Testu Bategina.

Madrilen, 2008ko ekainaren 20an emana.

JUAN CARLOS E.

Etxebizitza ministroa,  
BEATRIZ CORREDOR SIERRA



LURZORUARI BURUZKO LEGEAREN  
TESTU BATEGINA

---

TEXTO REFUNDIDO DE  
LA LEY DE SUELO

## TÍTULO PRELIMINAR

### DISPOSICIONES GENERALES

#### **Artículo 1. Objeto de esta Ley**

Esta Ley regula las condiciones básicas que garantizan la igualdad en el ejercicio de los derechos y en el cumplimiento de los deberes constitucionales relacionados con el suelo en todo el territorio estatal. Asimismo, establece las bases económicas y medioambientales de su régimen jurídico, su valoración y la responsabilidad patrimonial de las Administraciones Públicas en la materia.

#### **Artículo 2. Principio de desarrollo territorial y urbano sostenible**

1. Las políticas públicas relativas a la regulación, ordenación, ocupación, transformación y uso del suelo tienen como fin común la utilización de este recurso conforme al interés general y según el principio de desarrollo sostenible, sin perjuicio de los fines específicos que les atribuyan las Leyes.

2. En virtud del principio de desarrollo sostenible, las políticas a que se refiere el apartado anterior deben propiciar el uso racional de los recursos naturales armonizando los requerimientos de la economía, el empleo, la cohesión social, la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres, la salud y la seguridad de las personas y la protección del medio ambiente, contribuyendo a la prevención y reducción de la contaminación, y procurando en particular:

a) La eficacia de las medidas de conservación y mejora de la naturaleza, la flora y la fauna y de la protección del patrimonio cultural y del paisaje.

b) La protección, adecuada a su carácter, del medio rural y la preservación de los valores del suelo innecesario o inidóneo para atender las necesidades de transformación urbanística.

c) Un medio urbano en el que la ocupación del suelo sea eficiente, que esté suficientemente dotado por las infraestructuras y los servicios que le son propios y en el que los usos se combinen de forma funcional y se implanten efectivamente, cuando cumplan una función social.

La persecución de estos fines se adaptará a las peculiaridades que resulten del modelo territorial adoptado en cada caso por los poderes públicos competentes en materia de ordenación territorial y urbanística.

ATARIKO TITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua. Lege honen objektua**

Lege honek lurzoruarekin zerikusia duten Konstituzioko eskubideak baliatu eta eginbeharrak betetzeko unean Estatuaren lurralde osoan berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak arautzen ditu. Orobat ezartzen ditu lurzoruaren araubide juridikoak ekonomiari eta ingurumenari buruz izango dituen oinarriak, lurzoruaren balioespena eta administrazio publikoek gai honetan duten ondare-erantzukizuna.

**2. artikulua. Lurralde- eta hiri-garapen iraunkorraren printzipioa**

1. Lurzorua arautu, antolatu, okupatu, eraldatu eta erabiltzeari buruzko politika publikoen xede erkidea baliabide hori interes orokorarekin bat etorritz eta garapen iraunkorraren printzipioaren arabera erabiltzea da, alde batera utzi gabe legeek esleitzen dizkieten berariazko xedeak.

2. Garapen iraunkorraren printzipioaren arabera, aurreko zenbakian aipatzen diren politikek baliabide naturalen arazoizko erabileraren alde egin behar dute, ekonomia, enplegu, gizarte-kohesio, gizon eta emakumeen arteko tratua eta aukera-berdintasun, pertsonen osasun eta segurtasun, eta ingurumenaren babesaren eskakizunak harmonizatuz, kutsadurari aurre hartzen eta gutxitzen lagunduz, eta bereziki honetan ahaleginduz:

a) Izadia, flora eta fauna kontserbatzeko eta hobetzeko eta kultura-ondarea eta paisaia babesteko neurriak eraginkorrak izan daitezen.

b) Landa-ingurunea babesten, haren izateari dagokion eran, eta hirigintza-eraldaketaren premiei erantzuteko beharrezko ez den edo egokia ez den lurzoruaren balioak babesten.

c) Hiri-inguruneak lurzoruaren okupazio efizientea izan dezan, dagozkion azpiegitura eta zerbitzuez nahikoa hornitua egon dadin, eta erabilerak modu funtzionalean konbina daitezen eta egiazki ezarri, funtzio soziala dutenean.

Lurralde- eta hirigintza-antolamenduan eskudun diren botere publikoek kasuan-kasuan onetsitako lurralde-eredutik sortzen diren berezitasunetara egoituko da helburuok betetzeko ahalegina.

3. Los poderes públicos promoverán las condiciones para que los derechos y deberes de los ciudadanos establecidos en los artículos siguientes sean reales y efectivos, adoptando las medidas de ordenación territorial y urbanística que procedan para asegurar un resultado equilibrado, favoreciendo o conteniendo, según proceda, los procesos de ocupación y transformación del suelo.

El suelo vinculado a un uso residencial por la ordenación territorial y urbanística está al servicio de la efectividad del derecho a disfrutar de una vivienda digna y adecuada, en los términos que disponga la legislación en la materia.

### **Artículo 3. Ordenación del territorio y ordenación urbanística**

1. La ordenación territorial y la urbanística son funciones públicas no susceptibles de transacción que organizan y definen el uso del territorio y del suelo de acuerdo con el interés general, determinando las facultades y deberes del derecho de propiedad del suelo conforme al destino de éste. Esta determinación no confiere derecho a exigir indemnización, salvo en los casos expresamente establecidos en las leyes.

El ejercicio de la potestad de ordenación territorial y urbanística deberá ser motivado, con expresión de los intereses generales a que sirve.

2. La legislación sobre la ordenación territorial y urbanística garantizará:

a) La dirección y el control por las Administraciones Públicas competentes del proceso urbanístico en sus fases de ocupación, urbanización, construcción o edificación y utilización del suelo por cualesquiera sujetos, públicos y privados.

b) La participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción de los entes públicos en los términos previstos por esta Ley y las demás que sean de aplicación.

c) El derecho a la información de los ciudadanos y de las entidades representativas de los intereses afectados por los procesos urbanísticos, así como la participación ciudadana en la ordenación y gestión urbanísticas.

3. La gestión pública urbanística y de las políticas de suelo fomentará la participación privada.



3. Botere publikoek lan egingo dute ondorengo artikuluetan adierazitako herritarren eskubide eta eginbeharrak egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezen beharrezko diren baldintzak sustatzen. Hartarako, egoki diren lurralde-eta hirigintza-antolamenduko neurriak hartuko dituzte emaitza orekatu bat bermatzeko, eta lurzorua okupatzeko eta eraldatzeko prozesuak bultzatu edo geldiaraziko dituzte, zer dagokion.

Lurralde-eta hirigintza-antolamenduak bizitegi-erabilerari loturiko lurzorua etxebizitza duin eta egoki batez gozatzeko eskubidea gauzatzearen zerbitzura dago, gaiari buruzko legeriak xedatzen duen eran.

### 3. artikulua. Lurralde-antolamendua eta hirigintza-antolamendua

1. Lurralde-antolamendua eta hirigintza-antolamendua transakziorik onartzen ez duten funtzio publikoak dira, lurraldearen eta lurzoruaren erabilerara interes orokorraren arabera antolatzen eta definitzen dutenak; lurzoruaren xedearen arabera zehazten dituzte haren jabetza-eskubidearen ahalmenak eta eginbeharrak. Zehaztapen horrek ez du kalte-ordaina galdatzeko eskubiderik ematen, salbu eta legeetan espresuki ezarritako kasuetan.

Lurralde- eta hirigintza-antolamendurako ahala arrazoiturik baliatu beharko da, zein interes orokor zerbitzatzan dituen adieraziz.

2. Lurralde- eta hirigintza-antolamenduari buruzko legeriak honako hauek bermatuko ditu:

a) Administrazio publiko eskudunek zuzentzen eta kontrolatzen dutela hirigintza-prozesua, lurzorua okupatu, urbanizatu, eraikuntzak zein eraikinak egin eta erabiltzeko faseetan, edozein ere direla ekintzon subjektuak, publikoak zein pribatuak.

b) Erkidegoak erakunde publikoen jarduerak sorrarazitako gainbalioetan parte hartzen duela, Lege honetan eta aplikagarri diren beste guztietan ezarritakoaren arabera.

c) Herritarren eta hirigintza-prozesuek ukituriko interesak ordezkatzan dituzten erakundeen informazio-eskubidea, bai eta herritarrek hirigintza-antolamenduan eta -kudeaketan parte hartzea ere.

3. Hirigintzaren eta lurzoru-politiken kudeaketa publikoak parte-hartze pribatua sustatuko du.

TÍTULO I  
CONDICIONES BÁSICAS DE LA IGUALDAD  
EN LOS DERECHOS Y DEBERES CONSTITUCIONALES  
DE LOS CIUDADANOS

**Artículo 4. Derechos del ciudadano**

Todos los ciudadanos tienen derecho a:

a) Disfrutar de una vivienda digna, adecuada y accesible, concebida con arreglo al principio de diseño para todas las personas, que constituya su domicilio libre de ruido u otras inmisiones contaminantes de cualquier tipo que superen los límites máximos admitidos por la legislación aplicable y en un medio ambiente y un paisaje adecuados.

b) Acceder, en condiciones no discriminatorias y de accesibilidad universal, a la utilización de las dotaciones públicas y los equipamientos colectivos abiertos al uso público, de acuerdo con la legislación reguladora de la actividad de que se trate.

c) Acceder a la información de que dispongan las Administraciones Públicas sobre la ordenación del territorio, la ordenación urbanística y su evaluación ambiental, así como obtener copia o certificación de las disposiciones o actos administrativos adoptados, en los términos dispuestos por su legislación reguladora.

d) Ser informados por la Administración competente, de forma completa, por escrito y en plazo razonable, del régimen y las condiciones urbanísticas aplicables a una finca determinada, en los términos dispuestos por su legislación reguladora.

e) Participar efectivamente en los procedimientos de elaboración y aprobación de cualesquiera instrumentos de ordenación del territorio o de ordenación y ejecución urbanísticas y de su evaluación ambiental mediante la formulación de alegaciones, observaciones, propuestas, reclamaciones y quejas y a obtener de la Administración una respuesta motivada, conforme a la legislación reguladora del régimen jurídico de dicha Administración y del procedimiento de que se trate.

f) Ejercer la acción pública para hacer respetar las determinaciones de la ordenación territorial y urbanística, así como las decisiones resultantes de los procedimientos de evaluación ambiental de los instrumentos que las contienen y de los proyectos para su ejecución, en los términos dispuestos por su legislación reguladora.

I. TITULUA

**HERRITARREK KONSTITUZIOKO ESKUBIDE  
ETA EGINBEHARRETAN DUTEN BERDINTASUNAREN  
OINARRIZKO BALDINTZAK**

**4. artikulua. Herritarraren eskubideak**

Herritar guztiek dituzte eskubide hauek:

a) Etxebizitza duin, egoki eta eskuragarri bat izatea bizilekutzat, pertsona guztientzako diseinuaren printzipioaren arabera pentsatua, aplikagarri den legeriak onarturiko gehienezko mugak gainditzen dituen zaratarik edo beste edozein motatako immisio kutsagarririk gabea, ingurumen eta paisaia egoki baitean.

b) Zuzkidura publikoak eta erabilera publikorako irekitako ekipamendu kolektiboak erabiltzeko irispidea izatea, diskriminaziorik gabe eta irisgarritasun unibertsalaren baldintzetan, kasuan kasuko jarduera arautzen duen legeriaren arabera.

c) Administrazio publikoek lurralde-antolamenduaz, hirigintza-antolamenduaz eta haien ingurumen-ebaluazioaz duten informaziora irispidea izatea, bai eta onetsitako xedapenen edo administrazio-egintzen kopia edo ziurtagiria eskuratzeari ere, legeria arautzaileak ezarri bezala.

d) Eskudun den administrazioarengandik informazioa jasotzea, bere osotasunean, idatziz eta arrazoizko epean, finka jakin baten araubideaz eta hari aplikatu dakizkioken hirigintza-baldintzez, legeria arautzaileak ezarri bezala.

e) Lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamendu eta -exekuzioko eta haien ingurumen-ebaluazioko edozein tresna prestatzeko eta onesteko prozeduretan egiazki parte hartzea, alegazioak, oharrak, proposamenak, erreklamazioak eta kexuak aurkeztuz, eta administrazioetik erantzun arrazoitu bat jasotzea, administrazio horren eta kasuan kasuko prozeduraren araubide juridikoa arautzen duen legeriaren arabera.

f) Akzio publikoa baliatzea lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren zehaztapenak gordearazteko, bai eta zehaztapen horiek jasotzen dituzten tresnen ingurumen-ebaluaziorako prozeduretatik eta haiek exekutatzeko proiektuetatik sorturiko erabakiak ere, legeria arautzaileak ezarri bezala.

## **Artículo 5. Deberes del ciudadano**

Todos los ciudadanos tienen el deber de:

a) Respetar y contribuir a preservar el medio ambiente, el patrimonio histórico y el paisaje natural y urbano, absteniéndose en todo caso de realizar cualquier acto o desarrollar cualquier actividad no permitidos por la legislación en la materia.

b) Respetar y hacer un uso racional y adecuado, acorde en todo caso con sus características, función y capacidad de servicio, de los bienes de dominio público y de las infraestructuras y los servicios urbanos.

c) Abstenerse de realizar cualquier acto o de desarrollar cualquier actividad que comporte riesgo de perturbación o lesión de los bienes públicos o de terceros con infracción de la legislación aplicable.

d) Cumplir los requisitos y condiciones a que la legislación sujete las actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas, así como emplear en ellas en cada momento las mejores técnicas disponibles conforme a la normativa aplicable.

## **Artículo 6. Iniciativa privada en la urbanización y la construcción o edificación**

La legislación sobre ordenación territorial y urbanística regulará:

a) El derecho de iniciativa de los particulares, sean o no propietarios de los terrenos, en ejercicio de la libre empresa, para la actividad de ejecución de la urbanización cuando ésta no deba o no vaya a realizarse por la propia Administración competente. La habilitación a particulares, para el desarrollo de esta actividad deberá atribuirse mediante procedimiento con publicidad y concurrencia y con criterios de adjudicación que salvaguarden una adecuada participación de la comunidad en las plusvalías derivadas de las actuaciones urbanísticas, en las condiciones dispuestas por la legislación aplicable, sin perjuicio de las peculiaridades o excepciones que ésta prevea a favor de la iniciativa de los propietarios del suelo.

b) El derecho de consulta a las Administraciones competentes, por parte de quienes sean titulares del derecho de iniciativa a que se refiere la letra anterior, sobre los criterios y previsiones de la ordenación urbanística, de los planes y proyectos sectoriales, y de las obras que habrán de realizar para asegurar la conexión de la urbanización con las redes generales de servicios y, en su caso, las de ampliación y reforzamiento de las existentes fuera de la actuación.

## 5. artikulua. Herritarraren eginbeharrak

Herritar guztiek dituzte eginbehar hauek:

a) Ingurumena, ondare historikoa, paisaia naturala eta hiri-paisaia zaintzea eta babesten laguntzea, betiere gaiari buruzko legeriak debekatzen duen zeinahi egintza edo jarduera egitetik begiraturaz.

b) Jabari publikoko ondasunak eta azpiegiturak eta hiri-zerbitzuak zaintzea eta modu arrazoizko eta egokian erabiltzea, betiere haien ezaugarrien, funtzioaren eta zerbitzu-ahalmenaren arabera.

c) Aplikagarri den legeria hautsiz ondasun publikoei edo hirugarren bazuen ondasunei enbarazu edo kalte egiteko arriskua dakarren edozein egintza edo jarduera ez egitea.

d) Legeriak jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei ezartzen dizkien betekizun eta baldintzak betetzea, eta eskura dauden teknika-rik hoberenak erabiltzea uneoro haietan, aplikagarri diren arauen arabera.

## 6. artikulua. Ekimen pribatua urbanizatzean eta eraikuntzan zein eraikingintzan

Lurralde- eta hirigintza-antolamenduari buruzko legeriak honako hauek arautuko ditu:

a) Partikularrek, lurren jabe izan nahiz ez, enpresa-askatasunaren eskubidea baliatuz, urbanizatzeko-jarduerak exekutatzeko duten ekimen-eskubidea, urbanizatzeko-jarduera hori administrazio eskudunak berak egin behar ez duenean edo bera egitera ez doanean. Partikularrentzako gaikuntza, jarduera horretarako, publikotasun- eta konkurrentzia-irizpideen arabera prozeduraren bidez eta erkidegoak hirigintza-jarduketan ondoriozko gainbalioetan parte-hartze egokia izan dezala zainduko duten esleipen-irizpideak erabiliz esleituko da, aplikagarri den legeriak ezarritako baldintzetan, bere horretan utzirik legeria horrek lurraren jabeen ekimenaren alde aurreikusten dituen berezitasun edo salbuespenak.

b) Aurreko letran aipatzen den ekimen-eskubidearen titular direnek administrazio eskudunei kontsulta egiteko duten eskubidea, honako hauei buruzko irizpide eta aurreikuspenei buruz: hirigintza-antolamendua, plan eta proiektu sektorialak, eta urbanizazioa zerbitzu-sare orokorrekin lotzea bermatzeko egin beharko dituzten obrak eta, hala badagokio, jarduketatik kanpo daudenak zabalatzeko eta indartzekoak.

La legislación sobre ordenación territorial y urbanística fijará el plazo máximo de contestación de la consulta, que no podrá exceder de tres meses, salvo que una norma con rango de ley establezca uno mayor, así como los efectos que se sigan de ella. En todo caso, la alteración de los criterios y las previsiones facilitados en la contestación, dentro del plazo en el que ésta surta efectos, podrá dar derecho a la indemnización de los gastos en que se haya incurrido por la elaboración de proyectos necesarios que resulten inútiles, en los términos del régimen general de la responsabilidad patrimonial de las Administraciones Públicas.

c) El derecho de quienes elaboren instrumentos de ordenación de iniciativa privada, cuando hubieren obtenido la previa autorización de la Administración competente, a que se les faciliten por parte de los Organismos Públicos cuantos elementos informativos precisen para llevar a cabo su redacción, y a efectuar en fincas particulares las ocupaciones necesarias para la redacción del instrumento con arreglo a la Ley de Expropiación Forzosa.

d) El derecho del propietario a realizar en sus terrenos, por sí o a través de terceros, la instalación, construcción o edificación permitidas, siempre que los terrenos integren una unidad apta para ello por reunir las condiciones físicas y jurídicas requeridas legalmente y aquéllas se lleven a cabo en el tiempo y las condiciones previstas por la ordenación territorial y urbanística y de conformidad con la legislación aplicable.

## **Artículo 7. Régimen urbanístico del derecho de propiedad del suelo**

1. El régimen urbanístico de la propiedad del suelo es estatutario y resulta de su vinculación a concretos destinos, en los términos dispuestos por la legislación sobre ordenación territorial y urbanística.

2. La previsión de edificabilidad por la ordenación territorial y urbanística, por sí misma, no la integra en el contenido del derecho de propiedad del suelo. La patrimonialización de la edificabilidad se produce únicamente con su realización efectiva y está condicionada en todo caso al cumplimiento de los deberes y el levantamiento de las cargas propias del régimen que corresponda, en los términos dispuestos por la legislación sobre ordenación territorial y urbanística.

## **Artículo 8. Contenido del derecho de propiedad del suelo: facultades**

1. El derecho de propiedad del suelo comprende las facultades de uso, disfrute y explotación del mismo conforme al estado, clasificación, características

Lurralde- eta hirigintza-antolamenduari buruzko legeriak finkatuko du kontsultari erantzuteko gehienezko epea —inoiz ez hiru hilabete baino gehiagokoa, salbu eta lege-mailako arau batek epe luzeagoa ezartzen badu—, eta baita hartatik eratortzen diren ondorioak ere. Edozein kasutan, erantzunean emandako irizpideak eta aurreikuspenak aldatzeak —erantzun horrek efektuak izateko epearen barruan— eskubidea eman dezake alferrikakoak gertatu diren beharrezko proiektuak prestatzen egindako gastuen kalte-ordaina jasotzeko, administrazio publikoen ondare-erantzukizunaren araubide orokorren arabera.

c) Ekimen pribatuko antolamendu-tresnak egiten dituztenek, aurrez administrazio eskudunaren baimena lorturik, haiek idazteko behar dituzten informazio-elementu guztiak organismo publikoengandik jasotzeko duten eskubidea, eta finka partikularretan tresna idazteko beharrezko diren okupazioak Nahitaezko Desjabetzearen Legearen arabera egiteko dutena.

d) Jabeak bere lurretan, berak edo hirugarren batzuen bitartez, zilegi diren instalazio, eraikuntza zein eraikinak egiteko duen eskubidea, betiere lurrok horretarako unitate egokia osatzen badute, legez eskaturiko baldintza fisiko eta juridikoak betetzen dituztelako, eta instalazio, eraikuntza zein eraikinok lurralde- eta hirigintza-antolamenduak aurreikusiriko denboran eta baldintzetan eta aplikagarri den legeriaren arabera egiten badira.

## **7. artikulua. Lurzoruaren jabetza-eskubidearen hirigintza-araubidea**

1. Lurzoruaren jabetzaren hirigintza-araubidea estatutarioa da eta hura xede jakin batzuei loturik egotearen ondorio, lurralde- eta hirigintza-antolamenduari buruzko legeriak ezarri bezala.

2. Lurralde- eta hirigintza-antolamenduak egiten duen eraikigarritasun-aurreikuspenak, berez, ez du eraikigarritasuna sartzen lurzoruaren jabetza-eskubidearen edukian. Eraikigarritasuna ez da ondaretzen benetan eraikitakoan baino, eta eginbeharrak betetzearen eta dagokion araubidearen kargak kentzearen baldintzapean dago kasu guztietan, lurralde- eta hirigintza-antolamenduari buruzko legeriak ezarri bezala.

## **8. artikulua. Lurzoruaren jabetza-eskubidearen edukia: ahalmenak**

1. Lurzoruaren jabetza-eskubideak lurzoru hori erabiltzeko, gozatzeko eta ustiatzeko ahalmenak hartzen ditu barnean, une bakoitzean duen egoera, sail-

objetivas y destino que tenga en cada momento, de acuerdo con la legislación aplicable por razón de las características y situación del bien. Comprende asimismo la facultad de disposición, siempre que su ejercicio no infrinja el régimen de formación de fincas y parcelas y de relación entre ellas establecido en el artículo 17.

Las facultades a que se refiere el párrafo anterior incluyen:

a) La de realizar las instalaciones y construcciones necesarias para el uso y disfrute del suelo conforme a su naturaleza que, estando expresamente permitidas, no tengan el carácter legal de edificación.

b) La de edificar sobre unidad apta para ello en los términos dispuestos en la letra d) del artículo 6, cuando la ordenación territorial y urbanística atribuya a aquélla edificabilidad para uso o usos determinados y se cumplan los demás requisitos y condiciones establecidos para edificar.

Todo acto de edificación requerirá del acto de conformidad, aprobación o autorización administrativa que sea preceptivo, según la legislación de ordenación territorial y urbanística. Su denegación deberá ser motivada.

En ningún caso podrán entenderse adquiridas por silencio administrativo facultades o derechos que contravengan la ordenación territorial o urbanística.

c) La de participar en la ejecución de las actuaciones de urbanización a que se refiere la letra a) del apartado 1 del artículo 14, en un régimen de equitativa distribución de beneficios y cargas entre todos los propietarios afectados en proporción a su aportación.

Para ejercer esta facultad, o para ratificarse en ella, si la hubiera ejercido antes, el propietario dispondrá del plazo que fije la legislación sobre ordenación territorial y urbanística, que no podrá ser inferior a un mes ni contarse desde un momento anterior a aquél en que pueda conocer el alcance de las cargas de la actuación y los criterios de su distribución entre los afectados.

2. Las facultades del apartado anterior alcanzarán al vuelo y al subsuelo sólo hasta donde determinen los instrumentos de ordenación urbanística, de conformidad con las leyes aplicables y con las limitaciones y servidumbres que requiera la protección del dominio público.

## **Artículo 9. Contenido del derecho de propiedad del suelo: deberes y cargas**

1. El derecho de propiedad de los terrenos, las instalaciones, construcciones y edificaciones, comprende, cualquiera que sea la situación en que se encuentren,



kapen, ezaugarri objektibo eta xedearen arabera, ondasunaren ezaugarri eta izaerarengatik aplikagarri den legeriarekin bat etorritz. Orobat hartzen du berran xedatzeko ahalmena ere, baldin eta ahalmen hori baliatzeak 17. artikuluan ezarritako finka eta partzelen eraketaren eta haien arteko erlazioaren araubidea hausten ez badu betiere.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren ahalmenen artean daude:

a) Lurzorua bere izatearen arabera erabili eta gozatzeko beharrezko diren instalazio eta eraikuntzak egitea; instalazio eta eraikuntza horiek espresuki baimenduak eta legez eraikin-izaera ez dutenak izan beharko dute.

b) Eraikigarria den unitate baten gainean eraikitzea, 6. artikuluko d) letran adierazita dagoen bezala, lurralde- eta hirigintza-antolamenduak hari erabilera jakinetarako eraikigarritasuna esleitzen dionean eta eraikitzeko ezarritako beste betekizun eta baldintzak betetzen direnean.

2. Jarduketan eremuan sartzen diren lursailak eta jarduketei atxikirikoak aurreko zenbakiko eginbeharrak betetzeari loturik daude, berme erreal gisa. Eginbehar horiek administrazio eskudunak urbanizatzela-lanen harrera egiten duenean jotzen dira betetzat, edota, halakorik ezean, harrera egiteko epea amaitutakoan, obren zuzendaritza teknikoak emandako ziurtagiriarekin batera egindako harrera-eskabidearen unetik kontaktzen hasita, hargatik eragotzi gabe jarduketaren behin betiko kontuen likidaziotik erator daitezkeen betebeharrak.

3. Los convenios o negocios jurídicos que el promotor de la actuación celebre con la Administración correspondiente, no podrán establecer obligaciones o prestaciones adicionales ni más gravosas que las que procedan legalmente en perjuicio de los propietarios afectados. La cláusula que contravenga estas reglas será nula de pleno Derecho.

## **Artículo 17. Formación de fincas y parcelas y relación entre ellas**

### 1. Constituye:

a) Finca: la unidad de suelo o de edificación atribuida exclusiva y excluyentemente a un propietario o varios en proindiviso, que puede situarse en la rasante, en el vuelo o en el subsuelo. Cuando, conforme a la legislación hipotecaria, pueda abrir folio en el Registro de la Propiedad, tiene la consideración de finca registral.

b) Parcela: la unidad de suelo, tanto en la rasante como en el vuelo o el subsuelo, que tenga atribuida edificabilidad y uso o sólo uso urbanístico independiente.

2. La división o segregación de una finca para dar lugar a dos o más diferentes sólo es posible si cada una de las resultantes reúne las características exigidas por la legislación aplicable y la ordenación territorial y urbanística. Esta regla es también aplicable a la enajenación, sin división ni segregación, de participaciones indivisas a las que se atribuya el derecho de utilización exclusiva de porción o porciones concretas de la finca, así como a la constitución de asociaciones o sociedades en las que la cualidad de socio incorpore dicho derecho de utilización exclusiva.

En la autorización de escrituras de segregación o división de fincas, los notarios exigirán, para su testimonio, la acreditación documental de la conformidad, aprobación o autorización administrativa a que esté sujeta, en su caso, la división o segregación conforme a la legislación que le sea aplicable. El cumplimiento de este requisito será exigido por los registradores para practicar la correspondiente inscripción.

Los notarios y registradores de la propiedad harán constar en la descripción de las fincas, en su caso, su cualidad de indivisibles.

3. La constitución de finca o fincas en régimen de propiedad horizontal o de complejo inmobiliario autoriza para considerar su superficie total como una sola parcela, siempre que dentro del perímetro de ésta no quede superficie alguna que, conforme a la ordenación territorial y urbanística aplicable, deba te-

3. Jarduketaren sustatzaileak dagokion administrazioarekin egiten dituen hitzarmenek edo negozio juridikoez ezin ezarriko dute legez dagokion baino betebeharrak edo prestazio gehiago, ez eta astunagorik ere, jarduketak ukituriko jabeen kaltetan. Erregela horien kontra doan klausula zuzenbidean erabat deusez izango da.

## 17. artikulua. Finkak eta partzelak eratzea eta haien arteko erlazioa

### 1. Zera da:

a) Finka: jabe bati edo batzuei *pro indiviso* eta berei ez beste inori esleituriko lurzoru- edo eraikingintza-unitatea, sestran, hegalkinean edo lurpean egon daitekeena. Hipoteka-legeriaren arabera Jabetza Erregistroan folioa ireki deza keenean, erregistro-finkatza jotzen da.

b) Partzela: eraikigarritasuna eta erabilera edota hirigintza-erabilera berezia bakarrik esleitu zaion lurzoru-unitatea, hala sestran nola hegalkinean edo lurpean dagoena.

2. Finka bat zatituta zein bananduta bi edo gehiago sortzeko, nahitaezkoa da sortutako bakoitzak aplikagarri den legeriak eta lurralde- eta hirigintza-antolamenduak galdaturiko ezaugarriak izatea. Arau hori aplikagarri zaio partaidetza zatietzen zatitu edo banandu gabe besterentzeari ere, baldin eta partaidetza horiei finkaren zati jakin bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzeko eskubidea esleitzen bazaie, eta halaber elkarte edo sozietateen eraketari, elkarte horietan bazkide izateak berein badakar erabilera eskusiborako eskubide hori.

Finkak banantzeko edo zatitzeko eskriturak baimentzean, notarioek, aplikagarri zaion legeriaren arabera zatiketa edo banantze hori egiteko beharrezkoa den administrazioaren adostasun, onespen edo baimenaren egiaztatzea eskatuko dute lekukotzarako. Erregistratzaileek betekizun hori betetzea eskatuko dute dagokion inskripzioa egiteko.

Notarioek eta jabetzaren erregistratzaileek finkak zatietzen direla jasoko dute haien deskripzioan, hala badira.

3. Finka edo finkak jabetza horizontalaren edo higiezingunearen araubidean eratzeak haien azalera osoa partzela bakartzat hartzea baimentzen du, betiere baldintza honekin: partzelaren perimetroaren barruan ez dadila geratu aplikagarri den lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren arabera jabari publi-

ner la condición de dominio público, ser de uso público o servir de soporte a las obras de urbanización o pueda computarse a los efectos del cumplimiento del deber legal a que se refiere la letra a) del apartado 1 del artículo anterior.

4. Cuando, de conformidad con lo previsto en su legislación reguladora, los instrumentos de ordenación urbanística destinen superficies superpuestas, en la rasante y el subsuelo o el vuelo, a la edificación o uso privado y al dominio público, podrá constituirse complejo inmobiliario en el que aquéllas y ésta tengan el carácter de fincas especiales de atribución privativa, previa la desafectación y con las limitaciones y servidumbres que procedan para la protección del dominio público.

5. El acto administrativo que legitime la edificación de una parcela indivisible, por agotamiento de la edificabilidad permitida en ella o por ser la superficie restante inferior a la parcela mínima, se comunicará al Registro de la Propiedad para su constancia en la inscripción de la finca.

## **Artículo 18. Operaciones de distribución de beneficios y cargas**

1. El acuerdo aprobatorio de los instrumentos de distribución de beneficios y cargas produce el efecto de la subrogación de las fincas de origen por las de resultado y el reparto de su titularidad entre los propietarios, el promotor de la actuación, cuando sea retribuido mediante la adjudicación de parcelas incluidas en ella, y la Administración, a quien corresponde el pleno dominio libre de cargas de los terrenos a que se refieren las letras a) y b) del apartado 1 del artículo 16. En este supuesto, si procede la distribución de beneficios y cargas entre los propietarios afectados por la actuación, se entenderá que el titular del suelo de que se trata aporta tanto la superficie de su rasante como la del subsuelo o vuelo que de él se segrega.

2. En los supuestos de subrogación real, si existiesen derechos reales o cargas que se estimen incompatibles con la ordenación urbanística, el acuerdo aprobatorio de la distribución de beneficios y cargas declarará su extinción y fijará la indemnización correspondiente a cargo del propietario respectivo.

3. Existiendo subrogación real y compatibilidad con la ordenación urbanística, si la situación y características de la nueva finca fuesen incompatibles con la subsistencia de los derechos reales o cargas que habrían debido recaer sobre ellas, las personas a que estos derechos o cargas favorecieran podrán obtener su transformación en un derecho de crédito con garantía hipotecaria sobre la nueva finca, en la cuantía en que la carga fuera valorada. El registrador de la propiedad que aprecie tal incompatibilidad lo hará constar así en el asiento respectivo. En



kokoa izan behar duen azalerarik, erabilera publikokoa edo urbanizatzelanean euskarri izan behar duenik, edota aurreko artikuluko 1. zenbakiko a) letran aipatzen den legezko eginbeharra betetzeko kontuan har daitekeenik.

4. Hirigintza-antolamenduko tresnek, legeria arautzailean aurreikusitakoaren arabera, bata bestearen gainean dauden azalera —sestran eta lurpean edo hegalkinean— eraikigintza zein erabilera pribatura eta jabari publikora xedatzen dituztenean, higiezingunea eratu ahal izango da, eta azalera batzuek zein besteak esleipen pribatiboko finka berezi izaera izango dute, aurrez desafektazioa eginik eta jabari publikoaren babeserako bidezko diren mugapen eta zortasunak gordez.

5. Partzela zatietan batean eraikitzea legitimatzen duen administrazioegintza, partzela horrek baimendua zuen eraikigarritasuna agortzeak edo gaineko azalera partzela txikiena baino txikiagoa izateak eragina, Jabetzaren Erregistroari jakinaraziko zaio finKaren inskripzioan jasota gera dadin.

## **18. artikulua. Onurak eta kargak banatzeko eragiketak**

1. Onurak eta kargak banatzeko tresnak onesteko erabakiak jatorrizko finKak ondoriozkoetan subrogatzea eragiten du, eta haien titulartasuna honako hauen artean banatzea: jabeak, jarduketaren sustatzailea —jarduketan sartzen diren partzelak esleitz ordaintzen zaionean— eta Administrazioa, Administrazioari baitagokio 16. artikuluko 1. zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen diren lursailen jabari osoa, kargarik gabea. Kasu horretan, onurak eta kargak jarduketak ukituriko jabeen artean banatzea egokitzen bada, ulertuko da delako lurzoruen titularrak jartzen dituela hala sestraren azalera nola hartatik banantzen den lurpe edo hegalkinarena.

2. Subrogazio errealaren kasuetan, hirigintza-antolamenduarekin bateragarriak ez diren eskubide errealak edo kargak badaude, onurak eta kargak banatzeko onepen-erabakiak amaitutzat deklaratu dituzte haiek, eta jabe bakoitzaren gain joango den kalte-ordaina zehaztuko du.

3. Subrogazio erreala eta hirigintza-antolamenduarekin bateragarritasuna izanik, finka berriaren izaera eta ezaugarriak bateraezinak badira haien gainean ezarri beharko liratekeen eskubide errealak edo kargak irautearekin, eskubide edo karga horien onura duten pertsonak lortu ahal izango dute haiek finka berriaren gaineko hipoteka-bermea duen kreditu-eskubide bihurtzea, kargari egotz dakion balioaren muntarekin. Bateraezintasun hori hautematen duen erregistrozkoak hala jasoko du dagokion idazpenean. Alderdi interesdunen

defecto de acuerdo entre las partes interesadas, cualquiera de ellas podrá acudir al Juzgado competente del orden civil para obtener una resolución declarativa de la compatibilidad o incompatibilidad y, en este último caso, para fijar la valoración de la carga y la constitución de la mencionada garantía hipotecaria.

4. Cuando no tenga lugar la subrogación real, el acuerdo aprobatorio de la distribución de beneficios y cargas producirá la extinción de los derechos reales y cargas constituidos sobre la finca aportada, corriendo a cargo del propietario que la aportó la indemnización correspondiente, cuyo importe se fijará en el mencionado acuerdo.

5. No obstante lo dispuesto en los apartados 2 y 4, las indemnizaciones por la extinción de servidumbres prediales o derechos de arrendamiento incompatibles con el instrumento de ordenación urbanística o su ejecución, se considerarán gastos de urbanización en el instrumento de distribución de beneficios y cargas correspondiente.

6. Una vez firme en vía administrativa el acuerdo de aprobación definitiva de la distribución de beneficios y cargas, se procederá a su inscripción en el Registro de la Propiedad en la forma que se establece en el artículo 54.

7. Las transmisiones de terrenos a que den lugar las operaciones distributivas de beneficios y cargas por aportación de los propietarios incluidos en la actuación de transformación urbanística, o en virtud de expropiación forzosa, y las adjudicaciones a favor de dichos propietarios en proporción a los terrenos aportados por los mismos, estarán exentas, con carácter permanente, si cumplen todos los requisitos urbanísticos, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, y no tendrán la consideración de transmisiones de dominio a los efectos de la exacción del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

Cuando el valor de las parcelas adjudicadas a un propietario exceda del que proporcionalmente corresponda a los terrenos aportados por el mismo, se girarán las liquidaciones procedentes en cuanto al exceso.

## **Artículo 19. Transmisión de fincas y deberes urbanísticos**

1. La transmisión de fincas no modifica la situación del titular respecto de los deberes del propietario conforme a esta Ley y los establecidos por la legislación de la ordenación territorial y urbanística aplicable o exigibles por los actos de ejecución de la misma. El nuevo titular queda subrogado en los derechos y deberes del anterior propietario, así como en las obligaciones por éste asumidas frente a la Administración competente y que hayan sido objeto de inscripción

artean adostasunik ezean, haietariko zeinahik ordena zibileko epaitegi eskudunera jo ahal izango du bateragarritasuna edo bateraezintasuna deklaratzeko duen ebazpen bat lortzeko eta, bateraezintasun-deklarazioaren kasuan, kargaren balioespena zehazteko eta aipaturiko hipoteka-bermea eratzeko.

4. Subrogazio errealik ez denean, onurak eta kargak banatzeko onespenerabakiak amaitu egingo ditu jarritako finkaren gainean eraturiko eskubide errealak eta kargak, eta finka jarri zuen jabearen gain joango da dagokion kalteordaina; kalte-ordain horren munta aipaturiko erabakian zehaztuko da.

5. Artikulu honen 2. eta 4. zenbakietan xedaturikoa gorabehera, hirigintza-antolamenduko tresnarekin edo haren exekuzioarekin bateraezinek diren onibartzotasunak zein errentamendu-eskubideak amaitzeagatik kalte-ordainak urbanizatzeko-gastutzat joko dira onurak eta kargak banatzen dituen tresnan.

6. Onurak eta kargak banatzeko behin betiko onspen-erabakia irmoa denean administrazio-bidean, Jabetzaren Erregistroan inskribatuko da 54. artikulua ezartzen duen eran.

7. Hirigintzako eraldatze-jarduketan sartutako jabeen ekarpenengatik onurak eta kargak banatzeko eragiketek eragindako lursail-eskualdaketak, edo nahitaezko desjabetzeak eragindakoak, eta jabe horien alde berek jarritako lursailen proportzioan egindako esleipenak salbuetsirik egongo dira, modu iraunkorrean, hirigintza-betekizun guztiak betetzen badituzte, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik, eta ez dira jabari-eskualdaketatzat joko Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga ordainarazteari dagokionez.

Jabe bati esleituriko partzelen balioa hark jarritako lursailen proportzioan dagokiena baino handiagoa denean, gaundikinari dagozkion likidazioak igorriko dira.

## **19. artikulua. Finkak eskualdatzea eta hirigintzako eginbeharrak**

1. Finkak eskualdatzeak ez du aldatzen titularraren egoera jabeak lege honen arabera dituen eginbeharrei dagokienez, ez eta aplikagarri den lurralde-eta hirigintza-antolamenduaren legeriak ezarritakoei edo legeria hori exekutatzeke egintzengatik galda daitezkeenei dagokienez ere. Titular berriak bere egiten ditu aurreko jabearen eskubide eta eginbeharrak, bai eta hark administrazio eskudunaren aurrean bere gain hartutako eta erregistroan inskriba-

registrar, siempre que tales obligaciones se refieran a un posible efecto de mutación jurídico-real.

2. En las enajenaciones de terrenos, debe hacerse constar en el correspondiente título:

a) La situación urbanística de los terrenos, cuando no sean susceptibles de uso privado o edificación, cuenten con edificaciones fuera de ordenación o estén destinados a la construcción de viviendas sujetas a algún régimen de protección pública que permita tasar su precio máximo de venta, alquiler u otras formas de acceso a la vivienda.

b) Los deberes legales y las obligaciones pendientes de cumplir, cuando los terrenos estén sujetos a una de las actuaciones a que se refiere el apartado 1 del artículo 14.

3. La infracción de cualquiera de las disposiciones del apartado anterior faculta al adquirente para rescindir el contrato en el plazo de cuatro años y exigir la indemnización que proceda conforme a la legislación civil.

4. Con ocasión de la autorización de escrituras públicas que afecten a la propiedad de fincas o parcelas, los notarios podrán solicitar de la Administración Pública competente información telemática o, en su defecto, cédula o informe escrito expresivo de su situación urbanística y los deberes y obligaciones a cuyo cumplimiento estén afectas. Los notarios remitirán a la Administración competente, para su debido conocimiento, copia simple en papel o en soporte digital de las escrituras para las que hubieran solicitado y obtenido información urbanística, dentro de los diez días siguientes a su otorgamiento. Esta copia no devengará arancel.

5. En los títulos por los que se transmitan terrenos a la Administración deberá especificarse, a efectos de su inscripción en el Registro de la Propiedad, el carácter demanial o patrimonial de los bienes y, en su caso, su incorporación al patrimonio público de suelo.

## **Artículo 20. Declaración de obra nueva**

1. Para autorizar escrituras de declaración de obra nueva en construcción, los notarios exigirán, para su testimonio, la aportación del acto de conformidad, aprobación o autorización administrativa que requiera la obra según la legislación de ordenación territorial y urbanística, así como certificación expedida por técnico competente y acreditativa del ajuste de la descripción de la obra al proyecto que haya sido objeto de dicho acto administrativo.

tutako betebeharrak ere, betiere betebehar horiek aldaketa juridiko erreal bat ekar badezakete.

2. Lursailak besterentzean, honako hauek adierazi behar dira dagokion tituluan:

a) Lursailen hirigintza-izaera, lursailak erabilera pribaturako edo eraikitzeko ez direnean, antolamenduz kanpoko eraikinak dituztenean, edo salmentan, alokairuan edo etxebizitza iristeko beste edozein modutan gehienezko prezioa tasatzea ahalbidetzen duen babes publikoko araubideren baten mendeko etxebizitzak eraikitzeko direnean.

b) Betetzeko dauden legezko eginbeharrak eta betebeharrak, lursailak 14. artikuluko 1. zenbakian aipatzen den jarduketa baten mende daudenean.

3. Aurreko zenbakiko edozein xedapen haustek ahalmena ematen dio eskuratzaileari lau urteko epean kontratua hutsaltzeko eta legeria zibilaren arabera dagokion kalte-ordaina eskatzeko.

4. Finken edo partzelen jabetzari dagozkion eskritura publikoak baimentzerakoan, notarioek informazio telematikoa eskatu ahal izango diote administrazio publiko eskudunari, edota, halakorik ezean, haien hirigintza-izaera eta dagozkien eginbehar eta betebeharrak zehazten dituen zedula edo txosten idatzia. Notarioek eskrituretarako hirigintza-informazioa eskatu eta lortu dutenean, eskritura horien kopia sinplea bidaliko diote administrazio eskudunari, behar den bezala jakitun egon dadin, paperean zein euskarri digitalean, haiek eman ondorengo hamar egunen barruan. Kopia horrek ez du sortuko arantzelik.

5. Administrazioari lursailak eskualdatzen zaizkion tituluetan, zehazki adierazi behar da, Jabetza Erregistroan inskribatzeko, ondasunek jabari publiko edo ondare izaera dutela, eta, hala badagokio, lursailok lurzoru-ondare publikoan sartzen direla.

## **20. artikulua. Obra berriaren deklarazioa**

1. Eraikitzen ari den obra berriaren deklarazioaren eskriturak baimentzeko, notarioek, lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren legeriaren arabera obrak behar duen administrazioaren adoste-, oneste- edo baimentze-egintza aurkeztea galdatuko dute lekukotzarako, bai eta teknikari eskudun batek emandako ziurtagiri bat ere, obraren deskripzioa administrazio-egintza horri dagokion proiektuarekin bat datorrela egiaztatzen duena.

Tratándose de escrituras de declaración de obra nueva terminada, exigirán, además de la certificación expedida por técnico competente acreditativa de la finalización de ésta conforme a la descripción del proyecto, la acreditación documental del cumplimiento de todos los requisitos impuestos por la legislación reguladora de la edificación para la entrega de ésta a sus usuarios y el otorgamiento, expreso o por silencio administrativo, de las autorizaciones administrativas que prevea la legislación de ordenación territorial y urbanística.

2. Para practicar las correspondientes inscripciones de las escrituras de declaración de obra nueva, los registradores exigirán el cumplimiento de los requisitos establecidos en el apartado anterior.

### TÍTULO III VALORACIONES

#### Artículo 21. **Ámbito del régimen de valoraciones**

1. Las valoraciones del suelo, las instalaciones, construcciones y edificaciones, y los derechos constituidos sobre o en relación con ellos, se rigen por lo dispuesto en esta Ley cuando tengan por objeto:

a) La verificación de las operaciones de reparto de beneficios y cargas u otras precisas para la ejecución de la ordenación territorial y urbanística en las que la valoración determine el contenido patrimonial de facultades o deberes propios del derecho de propiedad, en defecto de acuerdo entre todos los sujetos afectados.

b) La fijación del justiprecio en la expropiación, cualquiera que sea la finalidad de ésta y la legislación que la motive.

c) La fijación del precio a pagar al propietario en la venta o sustitución forzosa.

d) La determinación de la responsabilidad patrimonial de la Administración Pública.

2. Las valoraciones se entienden referidas:

a) Cuando se trate de las operaciones contempladas en la letra a) del apartado anterior, a la fecha de iniciación del procedimiento de aprobación del instrumento que las motive.

Amaituriko obra berriaren deklarazioaren eskrituren kasuan, obra proiektuaren deskripzioaren arabera amaitu dela egiaztatuz teknikari eskudun batek emandako ziurtagiriak gainera, eraikingintza arautzen duen legeriak eraikina erabiltzaileei emateko ezartzen dituen betekizun guztiak bete direlako egiaztalaria galdutako dute notarioek, bai eta lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren legeriak aurreikusten dituen administrazio-baimenak eman izana ere, espresuki nahiz administrazio-isiltasunez.

2. Obra berriaren deklarazioaren eskriturei dagozkien inskripzioak egiteko, aurreko zenbakian ezarritako betekizunak betetzea galdutako dute erregistratzaileek.

### III. TITULUA

#### BALIOESPENAK

#### 21. artikulua. Balioespen-araubidearen eremua

1. Lege honetan xedatutakoak eraentzen ditu lurzorua, instalazioen, eraikuntza eta eraikinen eta haien gainean edo haiei dagokienez eraturiko eskubideen balioespenak, honako xede hauek dituztenean:

a) Onurak eta kargak banatzeko eragiketak edota lurralde- eta hirigintza-antolamendua exekutatzeko behar diren beste eragiketa batzuk burutzea, baldin eta balioespenak jabetza-eskubideari dagozkion ahalmen edo eginbeharren ondare-edukia erabakitzen badu, eragiketak ukitzen dituen subjektu guztien arteko adostasunik ezean.

b) Desjabetzean prezio zuzena finkatzea, zeinahi ere dela desjabetzearen xedea eta bide ematen dion legeria.

c) Jabeari nahitaezko salmenta edo ordezpenean ordaindu beharreko prezioa finkatzea.

d) Administrazio Publikoaren ondare-erantzukizuna zehaztea.

2. Balioespenak honako data hauei dagozkie:

a) Aurreko zenbakiko a) letran aipatzen diren eragiketak direnean, bide ematen dien tresna onesteko prozeduraren hasiera-data.

b) Cuando se aplique la expropiación forzosa, al momento de iniciación del expediente de justiprecio individualizado o de exposición al público del proyecto de expropiación si se sigue el procedimiento de tasación conjunta.

c) Cuando se trate de la venta o sustitución forzosas, al momento de la iniciación del procedimiento de declaración del incumplimiento del deber que la motive.

d) Cuando la valoración sea necesaria a los efectos de determinar la indemnización por responsabilidad patrimonial de la Administración Pública, al momento de la entrada en vigor de la disposición o del comienzo de la eficacia del acto causante de la lesión.

## **Artículo 22. Criterios generales para la valoración de inmuebles**

1. El valor del suelo corresponde a su pleno dominio, libre de toda carga, gravamen o derecho limitativo de la propiedad.

2. El suelo se tasará en la forma establecida en los artículos siguientes, según su situación y con independencia de la causa de la valoración y el instrumento legal que la motive.

Este criterio será también de aplicación a los suelos destinados a infraestructuras y servicios públicos de interés general supramunicipal, tanto si estuvieran previstos por la ordenación territorial y urbanística como si fueran de nueva creación, cuya valoración se determinará según la situación básica de los terrenos en que se sitúan o por los que discurren de conformidad con lo dispuesto en esta Ley.

3. Las edificaciones, construcciones e instalaciones, los sembrados y las plantaciones en el suelo rural, se tasarán con independencia de los terrenos siempre que se ajusten a la legalidad al tiempo de la valoración, sean compatibles con el uso o rendimiento considerado en la valoración del suelo y no hayan sido tenidos en cuenta en dicha valoración por su carácter de mejoras permanentes.

En el suelo urbanizado, las edificaciones, construcciones e instalaciones que se ajusten a la legalidad se tasarán conjuntamente con el suelo en la forma prevista en el apartado 2 del artículo 24.

Se entiende que las edificaciones, construcciones e instalaciones se ajustan a la legalidad al tiempo de su valoración cuando se realizaron de conformidad con la ordenación urbanística y el acto administrativo legitimante que requiriere-



b) Nahitaezko desjabetzea aplikatzen denean, prezio zuzenaren banakako espedientea hasten den unea edo, tasazio bateratuaren prozedura erabiltzen bada, desjabetze-proiektua jendaurrean jartzen den unea.

c) Nahitaezko salmenta edo ordezpenaren kasuan, hari bide eman dion eginbehar-haustea deklaratzeko prozedura hasten den unea.

d) Balioespena Administrazio Publikoaren ondare-erantzukizunagatiko kalte-ordaina zehazteko beharrezkoa denean, lesioa eragin duen xedapena indarrean sartzen den unea edo hura eragin duen egintzaren eraginkortasuna hasten den unea.

## **22. artikulua. Higiezinak balioesteko irizpide orokorrak**

1. Lurzoruaren balioa haren jabari osoari dagokio, jabetza mugatzen duen karga, zama edo eskubide orotarik libre.

2. Lurzorua ondorengo artikuluetan adierazten den eran tasatuko da, duen izaeraren arabera eta zeinahi ere direla balioespenaren kausa eta hura eragin duen lege-tresna.

Irizpide hori aplikatuko zaie udalaz gainera interes orokorreko azpiegitura eta zerbitzu publikoetarako lurzoruei ere, azpiegitura eta zerbitzuok lurralde-eta hirigintza-antolamenduan aurreikusitako izan zein berriak izan; lurzoruok balioesteko, kontuan hartuko da zein den azpiegitura eta zerbitzuok kokaturik dauden edo igarotzen diren lursailen oinarritzko izaera, lege honetan xedatutakoaren arabera.

3. Landa-lurzoruko eraikuntza, eraikin eta instalazio, eta ereindako eta landatutako sailak, lurraz aparte tasatuko dira, betiere balioesteko unean legearen arabera badira, lurzoruaren balioespenean kontuan izandako erabilera edo errendimenduarekin bateragarriak badira eta hobekuntza finakoak izateagatik kontuan hartu ez badira.

Lurzoru urbanizatuan, legearen arabera badiren eraikin, eraikuntza eta instalazioak lurzoruarekin batera tasatuko dira, 24. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitako eran.

Honako baldintza hauek betetzen direnean jotzen da eraikin, eraikuntza eta instalazioak legearen arabera badiren direla balioesten diren unean: hirigintza-antolamenduarekin eta beharrezko zuten administrazio-egintza legitimatzailea-

sen, o han sido posteriormente legalizadas de conformidad con lo dispuesto en la legislación urbanística.

La valoración de las edificaciones o construcciones tendrá en cuenta su antigüedad y su estado de conservación. Si han quedado incursas en la situación de fuera de ordenación, su valor se reducirá en proporción al tiempo transcurrido de su vida útil.

4. La valoración de las concesiones administrativas y de los derechos reales sobre inmuebles, a los efectos de su constitución, modificación o extinción, se efectuará con arreglo a las disposiciones sobre expropiación que específicamente determinen el justiprecio de los mismos; y subsidiariamente, según las normas del derecho administrativo, civil o fiscal que resulten de aplicación.

Al expropiar una finca gravada con cargas, la Administración que la efectúe podrá elegir entre fijar el justiprecio de cada uno de los derechos que concurren con el dominio, para distribuirlo entre los titulares de cada uno de ellos, o bien valorar el inmueble en su conjunto y consignar su importe en poder del órgano judicial, para que éste fije y distribuya, por el trámite de los incidentes, la proporción que corresponda a los respectivos interesados.

### **Artículo 23. Valoración en el suelo rural**

1. Cuando el suelo sea rural a los efectos de esta Ley:

a) Los terrenos se tasarán mediante la capitalización de la renta anual real o potencial, la que sea superior, de la explotación según su estado en el momento al que deba entenderse referida la valoración.

La renta potencial se calculará atendiendo al rendimiento del uso, disfrute o explotación de que sean susceptibles los terrenos conforme a la legislación que les sea aplicable, utilizando los medios técnicos normales para su producción. Incluirá, en su caso, como ingresos las subvenciones que, con carácter estable, se otorguen a los cultivos y aprovechamientos considerados para su cálculo y se descontarán los costes necesarios para la explotación considerada.

El valor del suelo rural así obtenido podrá ser corregido al alza hasta un máximo del doble en función de factores objetivos de localización, como la accesibilidad a núcleos de población o a centros de actividad económica o la ubicación en entornos de singular valor ambiental o paisajístico, cuya aplicación y ponderación habrá de ser justificada en el correspondiente expediente de valoración, todo ello en los términos que reglamentariamente se establezcan.

rekin bat etortzea, edota geroago legeztatuak izatea hirigintza-legerian xedatutakoaren arabera.

Eraikin zein eraikuntzen balioespenak kontuan izango du haien antzinateasuna eta kontserbazio-egoera. Antolamenduz kanpoko egoeran geratu bada, beren balio-bizitzatik igarotako denboraren proportzioan gutxituko zaie balioa.

4. Administrazio-emakiden eta higiezinaren gaineko eskubide errealeko balioespena, halakoak sortu, aldatu edo amaitzeari dagokionez, haien prezio zuzena zehazten duten desjabetzeari buruzko xedapenen arabera egingo da; eta subsidiarioki, aplikatzekoak diren zuzenbide administratibo, zibil edo fiskaleko arauen arabera.

Kargak dituen finka bat desjabetzean, hori egiten duen administrazioak bitarik bat aukeratu ahal izango du: jabariarekin batera diren eskubideetariko bakoitzaren prezio zuzena finkatzea, haietariko bakoitzaren titularren artean banatzeko, edota higiezina bere osoan balioestea, eta zenbateko hori organo judizialaren zainpean uztea, hark finkatu eta bana dezan, intzidenteen izapidearen bidez, interesdun bakoitzari dagokion proportzioa.

## **23. artikulua. Landa-lurzoruan eginiko balioespena**

1. Lurzorua landa-lur denean lege honi dagokionez:

a) Ustiapenaren urteko errenta erreala edo potentziala —bietan handiena— kapitalizatzearen bidez tasatuko dira lursailak, balioespena egiten den unean duten egoeraren arabera.

Errenta potentziala kalkulatzeko, aplikagarri den legeriaren arabera eta ekoizpenerako bitarteko tekniko normalak erabiliz lursailek izan dezaketen erabilera, gozamen edo ustiapenaren errendimendua hartuko da kontuan. Errenta horretan diru-sarreratzat joko dira, hala badagokio, kalkulua egiterakoan kontuan hartutako laboreei eta aprobetxamenduei modu iraunkorrez ematen zaizkien diru-laguntzak, eta ustiapenerako beharrezko diren kostuak deskontatuko dira.

Hala ateratako landa-lurzorua balioa gorantz zuzendu ahal izango da, gehienez ere bikoizteraino, kokapenari buruzko elementu objektiboen arabera, hala nola biztanleguneetara edo jarduera ekonomikoko guneeetara duen irisgarritasuna, edota ingurumen- eta paisaia-balio bereziko inguruetan egotea. Faktore horien aplikazioa eta haztapena dagokion balioespen-espeditentean justifikatu beharko da, eta hori guztia erregelamenduetan ezartzen diren baldintzen arabera egingo da.

b) Las edificaciones, construcciones e instalaciones, cuando deban valorarse con independencia del suelo, se tasarán por el método de coste de reposición según su estado y antigüedad en el momento al que deba entenderse referida la valoración.

c) Las plantaciones y los sembrados preexistentes, así como las indemnizaciones por razón de arrendamientos rústicos u otros derechos, se tasarán con arreglo a los criterios de las Leyes de Expropiación Forzosa y de Arrendamientos Rústicos.

2. En ninguno de los casos previstos en el apartado anterior podrán considerarse expectativas derivadas de la asignación de edificabilidades y usos por la ordenación territorial o urbanística que no hayan sido aún plenamente realizados.

#### **Artículo 24. Valoración en el suelo urbanizado**

1. Para la valoración del suelo urbanizado que no está edificado, o en que la edificación existente o en curso de ejecución es ilegal o se encuentra en situación de ruina física:

a) Se considerarán como uso y edificabilidad de referencia los atribuidos a la parcela por la ordenación urbanística, incluido en su caso el de vivienda sujeta a algún régimen de protección que permita tasar su precio máximo en venta o alquiler.

Si los terrenos no tienen asignada edificabilidad o uso privado por la ordenación urbanística, se les atribuirá la edificabilidad media y el uso mayoritario en el ámbito espacial homogéneo en que por usos y tipologías la ordenación urbanística los haya incluido.

b) Se aplicará a dicha edificabilidad el valor de repercusión del suelo según el uso correspondiente, determinado por el método residual estático.

c) De la cantidad resultante de la letra anterior se descontará, en su caso, el valor de los deberes y cargas pendientes para poder realizar la edificabilidad prevista.

2. Cuando se trate de suelo edificado o en curso de edificación, el valor de la tasación será el superior de los siguientes:

a) El determinado por la tasación conjunta del suelo y de la edificación existente que se ajuste a la legalidad, por el método de comparación, aplicado exclusivamente a los usos de la edificación existente o la construcción ya realizada.

b) Eraikin, eraikuntza eta instalazioak, lurzorutik aparte balioetsi behar direnean, berrezartze-kostuaren metodoaren bidez tasatuko dira, balioespen hori egiten den unean duten egoera eta antzinasunaren arabera.

c) Aldez aurretik landatuta eta ereinda zeuden sailak, bai eta landa-errentamenduak edo beste eskubide batzuk direla-eta eman beharreko kalte-ordainak ere, Nahitaezko Desjabetze eta Landa Errentamenduen Legeetako irizpideen arabera tasatuko dira.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitako ezein kasutan ezin hartuko dira kontuan lurralde- edo hirigintza-antolamenduak esleituriko eraikigarritasun eta erabileretatik eratorritako itxarokizunak, baldin eta eraikigarritasun eta erabilerok oraindik ez badira guztiz burutu.

#### **24. artikulua. Lurzoru urbanizatuan eginiko balioespena**

1. Lurzoru urbanizaturik balioesteko, eraiki gabea bada edo han dauden nahiz egiten ari diren eraikinak legez kontrakoak badira edo hondamen fisiko egoeran badaude:

a) Hirigintza-antolamenduak partzelari esleitzen dizkion erabilera eta eraikigarritasuna hartuko dira erreferentziazkotzat, barnean harturik, hala badagokio, salmantan edo alokairuan gehienezko prezioa tasatzea ahalbidetzen duen babes-araubideren baten mendeko etxebizitzatarakoa.

Hirigintza-antolamenduak eraikigarritasunik edo erabilera pribaturik ez badie esleitu lursailei, erabilera eta tipologiengatik hirigintza-antolamenduak haiek sartuak dituen espazio-eremu homogeneoko batez besteko eraikigarritasuna eta erabilera nagusia esleituko zaie.

b) Eraikigarritasun horri lurzoruaren eragin-balioa aplikatuko zaio, dago-kion erabileraren arabera, hondar-metodo estatikoaren bidez zehaztua.

c) Aurreko letratik ateratako zenbatekotik, aurreikusitako eraikigarritasuna burutu ahal izateko zor diren eginbehar eta kargen balioa deskontatuko da, hala badagokio.

2. Eraikitako lurzoru edo eraikitzen ari dena denean, tasazioaren balioa honako hauetan handiena izango da:

a) Lurzoruaren eta han lehendik legearen arabera eraikitakoaren tasazio bateratuak ezarritakoa, tasaziorako konparazio-metodoa erabilirik, eta metodo hori lehendik dauden eraikin edo eraikuntzen erabilerei bakarrik aplikaturik.

b) El determinado por el método residual del apartado 1 de este artículo, aplicado exclusivamente al suelo, sin consideración de la edificación existente o la construcción ya realizada.

3. Cuando se trate de suelo urbanizado sometido a actuaciones de reforma o renovación de la urbanización, el método residual a que se refieren los apartados anteriores considerará los usos y edificabilidades atribuidos por la ordenación en su situación de origen.

### **Artículo 25. Indemnización de la facultad de participar en actuaciones de nueva urbanización**

1. Procederá valorar la facultad de participar en la ejecución de una actuación de nueva urbanización cuando concurran los siguientes requisitos:

a) Que los terrenos hayan sido incluidos en la delimitación del ámbito de la actuación y se den los requisitos exigidos para iniciarla o para expropiar el suelo correspondiente, de conformidad con la legislación en la materia.

b) Que la disposición, el acto o el hecho que motiva la valoración impida el ejercicio de dicha facultad o altere las condiciones de su ejercicio modificando los usos del suelo o reduciendo su edificabilidad.

c) Que la disposición, el acto o el hecho a que se refiere la letra anterior surtan efectos antes del inicio de la actuación y del vencimiento de los plazos establecidos para dicho ejercicio, o después si la ejecución no se hubiera llevado a cabo por causas imputables a la Administración.

d) Que la valoración no traiga causa del incumplimiento de los deberes inherentes al ejercicio de la facultad.

2. La indemnización por impedir el ejercicio de la facultad de participar en la actuación o alterar sus condiciones será el resultado de aplicar el mismo porcentaje que determine la legislación sobre ordenación territorial y urbanística para la participación de la comunidad en las plusvalías de conformidad con lo previsto en la letra b) del apartado primero del artículo 16 de esta Ley:

a) A la diferencia entre el valor del suelo en su situación de origen y el valor que le correspondería si estuviera terminada la actuación, cuando se impida el ejercicio de esta facultad.

b) A la merma provocada en el valor que correspondería al suelo si estuviera terminada la actuación, cuando se alteren las condiciones de ejercicio de la facultad.

b) Artikulu honetako 1. zenbakiko hondar-metodoak zehazturikoa, metodoa lurzoruari bakarrik aplikaturik, kontuan hartu gabe lehendik dauden eraikin edo eraikuntzak.

3. Urbanizazioa eraberritzeko edo berriztatzeko jarduketak egiten ari diren lurzoru urbanizatua denean, aurreko zenbakietan aipatzen den hondar-metodoak kontuan izango ditu antolamenduak lurzoruari jatorrizko izaeran esleituriko erabilerak eta eraikigarritasunak.

## **25. artikulua. Urbanizazio berriko jarduketetan parte hartzeko ahalmenari dagokion kalte-ordaina**

1. Bidezkoa izango da urbanizazio berriko jarduketa bat exekutatzean parte hartzeko ahalmena balioestea, betekizun hauek betetzen direnean:

a) Lursailak jarduketa-eremuaren zedarriztapenaren barruan sartuak izatea eta jarduketari ekiteko edo dagokion lurzoru desjabetzeko eskatzen diren betekizunak betetzea, gaiari buruzko legeriaren arabera.

b) Balioespena eragiten duen xedapen, egintza edo gertaerak ahalmen hori baliatzea eragozte edo baliatzeko baldintzak aldatzea, lurzoruaren erabilerak aldatuz edo eraikigarritasuna gutxituz.

c) Aurreko letran aipatzen den xedapen, egintza edo gertaerak efektuak izatea jarduketari ekin aurretik eta baliatze horretarako jarritako epeak amaitu aurretik, edo, exekuzioa Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik burutu ez bada, ondoren.

d) Balioespena egiteko arrazoia ez izatea ahalmenari dagozkion eginbeharrak bete ez izana.

2. Jarduketan parte hartzeko ahalmena baliatzen ez uzteagatik edo baldintzak aldatzeagatik eman beharreko kalte-ordaina kalkulatzeko, lege honetako 16. artikuluko lehen zenbakiko b) letran aurreikusitakoaren arabera lurralde-eta hirigintza-antolamenduari buruzko legeriak erkidegoak gainbalioetan parte hartzeko zehazten duen ehuneko bera aplikatuko zaio:

a) Lurzoruak jatorrizko izaeran zuen balioaren eta jarduketa amaituta balego legokiokeen balioaren arteko aldeari, ahalmen hori baliatzea eragozten denean.

b) Jarduketa amaituta balego lurzoruari legokiokeen balioan eragindako murrizketari, ahalmena baliatzeko baldintzak aldatzen direnean.

## **Artículo 26. Indemnización de la iniciativa y la promoción de actuaciones de urbanización o de edificación**

1. Cuando devengan inútiles para quien haya incurrido en ellos por efecto de la disposición, del acto o del hecho que motive la valoración, los siguientes gastos y costes se tasarán por su importe incrementado por la tasa libre de riesgo y la prima de riesgo:

a) Aquéllos en que se haya incurrido para la elaboración del proyecto o proyectos técnicos de los instrumentos de ordenación y ejecución que, conforme a la legislación de la ordenación territorial y urbanística, sean necesarios para legitimar una actuación de urbanización, de edificación, o de conservación o rehabilitación de la edificación.

b) Los de las obras acometidas y los de financiación, gestión y promoción precisos para la ejecución de la actuación.

c) Las indemnizaciones pagadas.

2. Una vez iniciadas, las actuaciones de urbanización se valorarán en la forma prevista en el apartado anterior o en proporción al grado alcanzado en su ejecución, lo que sea superior, siempre que dicha ejecución se desarrolle de conformidad con los instrumentos que la legitimen y no se hayan incumplido los plazos en ellos establecidos. Para ello, al grado de ejecución se le asignará un valor entre 0 y 1, que se multiplicará:

a) Por la diferencia entre el valor del suelo en su situación de origen y el valor que le correspondería si estuviera terminada la actuación, cuando la disposición, el acto o hecho que motiva la valoración impida su terminación.

b) Por la merma provocada en el valor que correspondería al suelo si estuviera terminada la actuación, cuando sólo se alteren las condiciones de su ejecución, sin impedir su terminación.

La indemnización obtenida por el método establecido en este apartado nunca será inferior a la establecida en el artículo anterior y se distribuirá proporcionalmente entre los adjudicatarios de parcelas resultantes de la actuación.

3. Cuando el promotor de la actuación no sea retribuido mediante adjudicación de parcelas resultantes, su indemnización se descontará de la de los propietarios y se calculará aplicando la tasa libre de riesgo y la prima de riesgo a la parte dejada de percibir de la retribución que tuviere establecida.



## 26. artikulua. Urbanizatzeko- edo eraikitze-jarduketaren ekimenari eta sustapenari dagokien kalte-ordaina

1. Honako gastu eta kostu hauek, balioespena eragin duen xedapen, egintza edo gertaeraren ondorioz izan dituenarentzat alferreko gertatzen direnean, beren zenbatekoari arriskurik gabeko tasa eta arrisku-prima gehituta tasatuko dira:

a) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren legeriaren arabera urbanizatzeko- zein eraikitze-jarduketa bat edo eraikinak kontserbatzeko zein birgaitzeko jarduketa bat legitimatzeko beharrezkoak diren antolamendu- eta exekuzio-tresnen proiektu teknikoak egiteko izan direnak.

b) Egindako obrenak eta jarduketa exekutatzeko beharrezko ziren finantzaketa, kudeaketa eta sustapenarenak.

c) Ordaindutako kalte-ordainak.

2. Urbanizatzeko-jarduketak, hasi eta gero, aurreko zenbakian aurreikusitako eran balioetsiko dira, edota iritsitako exekuzio-mailaren proportzioan —handiena zein den—, betiere legitimatzen duten tresnen arabera egiten bada exekuzio hori eta haietan ezarritako epeak bete badira. Horretarako, exekutatze-mailari 0 eta 1 arteko balio bat emango zaio, eta balio hori honako hauekin biderkatuko da:

a) Lurzoruak jatorrizko izaeran zuen balioaren eta jarduketa amaituta balego legokiokeen balioaren arteko aldea, balioespena eragiten duen xedapen, egintza edo gertaerak jarduketa amaitzen uzten ez duenean.

b) Jarduketa amaituta balego lurzoruari legokiokeen balioan eragindako murrizketa, exekutatze-baldintzak baino aldatzen ez direnean, amaitzea bera galarazi gabe.

Zenbaki honetan ezarritako metodoaren bidez lortutako kalte-ordaina inoiz ez da izango aurreko artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa, eta proportzionalki banatuko da jarduketaren ondoriozko partzelen esleipendunen artean.

3. Jarduketaren sustatzaileari jarduketaren ondorioz sortzen diren partzelak esleituz ordaintzen ez zaionean, haren kalte-ordaina jabeenetik deskontatuko da, eta ezarrita duen ordainsaritik jaso ez duen parteari arriskurik gabeko tasa eta arrisku-prima aplikatuz kalkulatu da.

4. Los propietarios del suelo que no estuviesen al día en el cumplimiento de sus deberes y obligaciones, serán indemnizados por los gastos y costes a que se refiere el apartado 1, que se tasarán en el importe efectivamente incurrido.

#### **Artículo 27. Valoración del suelo en régimen de equidistribución de beneficios y cargas**

1. Cuando, en defecto de acuerdo entre todos los sujetos afectados, deban valorarse las aportaciones de suelo de los propietarios partícipes en una actuación de urbanización en ejercicio de la facultad establecida en la letra c) del apartado 1 del artículo 8, para ponderarlas entre sí o con las aportaciones del promotor o de la Administración, a los efectos del reparto de los beneficios y cargas y la adjudicación de parcelas resultantes, el suelo se tasará por el valor que le correspondería si estuviera terminada la actuación.

2. En el caso de propietarios que no puedan participar en la adjudicación de parcelas resultantes de una actuación de urbanización por causa de la insuficiencia de su aportación, el suelo se tasará por el valor que le correspondería si estuviera terminada la actuación, descontados los gastos de urbanización correspondientes incrementados por la tasa libre de riesgo y la prima de riesgo.

#### **Artículo 28. Régimen de la valoración**

La valoración se realiza, en todo lo no dispuesto en esta Ley:

a) Conforme a los criterios que determinen las Leyes de la ordenación territorial y urbanística, cuando tenga por objeto la verificación de las operaciones precisas para la ejecución de la ordenación urbanística y, en especial, la distribución de los beneficios y las cargas de ella derivadas.

b) Con arreglo a los criterios de la legislación general de expropiación forzosa y de responsabilidad de las Administraciones Públicas, según proceda, en los restantes casos.

### **TÍTULO IV**

#### **EXPROPIACIÓN FORZOSA Y RESPONSABILIDAD PATRIMONIAL**

#### **Artículo 29. Régimen de las expropiaciones por razón de la ordenación territorial y urbanística**

1. La expropiación por razón de la ordenación territorial y urbanística puede aplicarse para las finalidades previstas en la legislación reguladora de di-

4. Eginbehar eta betebeharrak betetzen atzeratuta dabiltzan lurzoru-jabeek 1. zenbakian aipatzen diren gastu eta kostuen kalte-ordaina jasoko dute; gastu eta kostu horiek benetan ordaindutako zenbatekoan tasatuko dira.

#### **27. artikulua. Lurzoruaren balioespena onurak eta kargak ekitatez banatzeko araubidean**

1. Jarduketak ukitzen dituen subjektu guztien arteko adostasunik ez eta 8. artikuluko 1. zenbakiko c) letran ezarritako ahalmena baliatuz urbanizatzeko jarduketa batean parte hartzen duten jabeen lurzoru-ekarpenak balioetsi behar direnean, haiek elkarren artean edo sustatzailearen nahiz Administrazioaren ekarpenekin haztatzeko, helburua izanik onurak eta kargak banatu eta sorturiko partzelak esleitzea, jarduketa amaituta balego legokiokoen balioan tasatuko da lurzorua.

2. Egin duten ekarpena aski ez izateagatik urbanizatzeko-jarduketa batetik sorturiko partzelen esleipenean parte hartu ezin duten jabeen kasuan, jarduketa amaituta balego legokiokoen balioan tasatuko da lurzorua, dagozkion urbanizatzeko-gastuak —arriskurik gabeko tasak eta arrisku-primak gehituta— deskontaturik.

#### **28. artikulua. Balioespena egiteko araubidea**

Lege honetan xedatu gabeko guztian, balioespena honela egiten da:

Tendrán carácter jurídico administrativo todas las cuestiones que se suscitaren con ocasión o como consecuencia de los actos y convenios regulados en la legislación urbanística aplicable entre los órganos competentes de las Administraciones Públicas y los propietarios, individuales o asociados, o promotores de actuaciones de transformación urbanística, incluso las relativas a cesiones de terrenos para urbanizar o edificar.

#### **Artículo 48. Acción pública**

1. Será pública la acción para exigir ante los órganos administrativos y los Tribunales Contencioso-Administrativos la observancia de la legislación y demás instrumentos de ordenación territorial y urbanística.

2. Si dicha acción está motivada por la ejecución de obras que se consideren ilegales, podrá ejercitarse durante la ejecución de las mismas y hasta el transcurso de los plazos establecidos para la adopción de las medidas de protección de la legalidad urbanística.

#### **Artículo 49. Acción ante Tribunales ordinarios**

Los propietarios y titulares de derechos reales, además de lo previsto en el artículo anterior, podrán exigir ante los Tribunales ordinarios la demolición de las obras e instalaciones que vulneren lo dispuesto respecto a la distancia entre construcciones, pozos, cisternas, o fosas, comunidad de elementos constructivos u otros urbanos, así como las disposiciones relativas a usos incómodos, insalubres o peligrosos que estuvieren directamente encaminadas a tutelar el uso de las demás fincas.

#### **Artículo 50. Recurso contencioso-administrativo**

1. Los actos de las Entidades Locales, cualquiera que sea su objeto, que pongan fin a la vía administrativa serán recurribles directamente ante la jurisdicción contencioso-administrativa.

2. Los actos de aprobación definitiva de los instrumentos de ordenación territorial y de los de ordenación y ejecución urbanísticas, sin perjuicio de los

### III. KAPITULUA

#### Akzioak eta errekurtsioak

#### 47. artikulua. Hirigintza-legerian arauturiko egintza eta hitzarmenen izaera

Izaera juridiko-administratiboa izango dute hirigintza-legeria aplikagarrian arauturiko egintza eta hitzarmenen kariaz edo haien ondorioz administrazio publikoen organo eskudunen eta jabeen artean —jabe banako zein elkartu—, edo hirigintzako eraldatze-jarduketan sustatzaileen artean sortzen diren arazo guztiek, baita urbanizatzeko zein eraikitzeko lursailen lagapenei dagozkienek ere.

#### 48. artikulua. Akzio publikoa

1. Publikoa izango da administrazio-organoen eta administrazioarekiko auzien auzitegien aurrean lurralde- eta hirigintza-antolamenduko legeria eta gainerako tresnak bete daitezela galdatzeko akzioa.

2. Akzio hori, legez kontrakotzat jotzen diren obrak egiteak eragina bada, obra horiek egiten diren bitartean baliatu ahal izango da, hirigintza-legeriako babes-neurriak hartzeko ezarritako epeak igaro arte.

#### 49. artikulua. Auzitegi arrunten aurreko akzioa

Eskubide errealean jabe eta titularrek, aurreko artikuluan aurreikusitakoaz gainera, auzitegi arrunten aurrean galdatu ahal izango dute eraits daitezela obra eta instalazioak, baldin eta urratzen badute eraikuntzen arteko tarteari, putzuei, zisternei, edo hobiei, eraikuntza-elementu zein beste hiri-elementu batzuen erkidegoari buruz xedaturikoa, edota gainerako finken erabilera zuzenean babestera bidertuak diren erabilera gogaikarri, osasungaitz edo arriskutsuei buruzko xedapenak.

#### 50. artikulua. Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa

1. Administrazio-bidea amaitzen duten toki-entitateen egintzak, zeinahi ere dela haien objektua, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean errekurritu ahal izango dira zuzenean.

2. Lurralde-antolamenduaren eta hirigintza-antolamendu eta -exekuzioaren tresnak behin betiko onesteko egintzak administrazioarekiko auzien

recursos administrativos que puedan proceder, podrán ser impugnados ante la jurisdicción contencioso-administrativa, en los términos prevenidos por su legislación reguladora.

## CAPÍTULO IV

### Registro de la Propiedad

#### Artículo 51. Actos inscribibles

Serán inscribibles en el Registro de la Propiedad:

1. Los actos firmes de aprobación de los expedientes de ejecución de la ordenación urbanística en cuanto supongan la modificación de las fincas registrales afectadas por el instrumento de ordenación, la atribución del dominio o de otros derechos reales sobre las mismas o el establecimiento de garantías reales de la obligación de ejecución o de conservación de la urbanización.

2. Las cesiones de terrenos con carácter obligatorio en los casos previstos por las leyes o como consecuencia de transferencias de aprovechamiento urbanístico.

3. La incoación de expediente sobre disciplina urbanística o de aquéllos que tengan por objeto el apremio administrativo para garantizar el cumplimiento de sanciones impuestas.

4. Las condiciones especiales a que se sujeten los actos de conformidad, aprobación o autorización administrativas, en los términos previstos por las leyes.

5. Los actos de transferencia y gravamen del aprovechamiento urbanístico.

6. La interposición de recurso contencioso-administrativo que pretenda la anulación de instrumentos de ordenación urbanística, de ejecución, o de actos administrativos de intervención.

7. Las sentencias firmes en que se declare la anulación a que se refiere el apartado anterior, cuando se concreten a fincas determinadas y haya participado su titular en el procedimiento.

8. Cualquier otro acto administrativo que, en desarrollo de los instrumentos de ordenación o ejecución urbanísticos modifique, desde luego o en el futuro, el dominio o cualquier otro derecho real sobre fincas determinadas o la descripción de éstas.

jurisdikzioaren aurrean aurkaratu ahal izango dira, haiek arautzen dituen legeriaren arabera; horrek ez du eragotziko bidezko izan daitezkeen administrazio-errekurtsiak jartzea.

## IV. KAPITULUA

### Jabetza Erregistroa

#### 51. artikulua. Egintza inskribagarriak

Jabetza Erregistroan inskribagarriak izango dira:

1. Hirigintza-antolamendua exekutatzeko espedienteak onesteko egintza irmoak, honako hauek dakartzaten kasuan: antolamendu-tresnak ukitzen dituen erregistro-finkak aldatzea, haien gaineko jabaria edo beste eskubide erreal batzuk esleitzea edo urbanizazioa exekutatzeko edo kontserbatzeko betebeharraren benetako bermeak ezartzea.

2. Lursailen nahitaezko lagapenak, legeek aurreikusitako kasuetan edo hirigintza-aprobetxamenduen eskualdatzeen ondorioz eginak.

3. Hirigintza-diziplinari buruzko espedientearen edo ezarritako zehapenak betetzea bermatzeko administrazio-premiamendua objektu duten espedienteen irekiera.

4. Administrazioaren adoste-, oneste- edo baimentze-egintzak bete behar dituzten baldintza bereziak, legeek aurreikusitako eran.

5. Hirigintza-aprobetxamendua eskualdatzeko eta zamatzeko egintzak.

6. Hirigintza-antolamenduko tresnak, exekuzio-tresnak edo administrazioaren esku-hartze egintzak deuseztatzea xede duen administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea.

7. Aurreko zenbakian adierazten den deuseztatzea deklaritzen duten epai irmoak, finka jakin batzuei buruzkoak direnean eta haien titularrak prozeduran parte hartu duenean.

8. Beste zeinahi administrazio-egintza, baldin eta, hirigintza-antolamenduko zein -exekuzioko tresnak garatzean, finka jakin batzuen gaineko jabaria edo beste zeinahi eskubide erreal edo finken deskripzioa aldatzen badu, une beretik edo etorkizunean.

## **Artículo 52. Certificación administrativa**

Salvo en los casos que la legislación establezca otra cosa, los actos a que se refiere el artículo anterior podrán inscribirse en el Registro de la Propiedad mediante certificación administrativa expedida por órgano urbanístico actuante, en la que se harán constar en la forma exigida por la legislación hipotecaria las circunstancias relativas a las personas, los derechos y las fincas a que afecte el acuerdo.

## **Artículo 53. Clases de asientos**

1. Se harán constar mediante inscripción los actos y acuerdos a que se refieren los apartados 1, 2, 7 y 8 del artículo 51, así como la superficie ocupada a favor de la Administración, por tratarse de terrenos destinados a dotaciones públicas por la ordenación territorial y urbanística.

2. Se harán constar mediante anotación preventiva los actos de los apartados 3 y 6 del artículo 51. Tales anotaciones caducarán a los cuatro años y podrán ser prorrogadas a instancia del órgano urbanístico actuante o resolución del órgano jurisdiccional, respectivamente.

3. Se harán constar mediante nota marginal los demás actos y acuerdos a que se refiere el artículo 51. Salvo que otra cosa se establezca expresamente, las notas marginales tendrán vigencia indefinida, pero no producirán otro efecto que dar a conocer la situación urbanística en el momento a que se refiere el título que las originara.

## **Artículo 54. Expedientes de distribución de beneficios y cargas**

1. La iniciación del expediente de distribución de beneficios y cargas que corresponda o la afección de los terrenos comprendidos en una actuación de transformación urbanística al cumplimiento de las obligaciones inherentes a la forma de gestión que proceda, se harán constar en el Registro por nota al margen de la última inscripción de dominio de las fincas correspondientes.

2. La nota marginal tendrá una duración de tres años y podrá ser prorrogada por otros tres años a instancia del órgano o agrupación de interés urbanístico que hubiera solicitado su práctica.

3. La inscripción de los títulos de distribución de beneficios y cargas podrá llevarse a cabo, bien mediante la cancelación directa de las inscripciones y demás asientos vigentes de las fincas originarias, con referencia al folio registral de las fincas resultantes del proyecto, bien mediante agrupación previa de la totali-

## 52. artikulua. Administrazio-ziurtagiria

Legeriak beste zerbait ezartzen duen kasuetan izan ezik, aurreko artikulua adierazten dituen egintzak Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izango dira hirigintza-organo jarduleak emandako administrazio-ziurtagiriaren bidez; ziurtagiri horretan, erabakiak ukitzen dituen pertsona, eskubide eta finkei buruzko inguruabarrak jasoko dira, hipoteka-legeriak galdaturiko eran.

## 53. artikulua. Idazpen motak

1. Inskripzio bidez jasoko dira 51. artikulua 1., 2., 7. eta 8. zenbakietan adierazitako egintza eta erabakiak, eta baita Administrazioaren alde okupaturiko azalera ere, lurralde- eta hirigintza-antolamenduak zuzkidura publikoetara xedaturiko lursailak izateagatik.

2. Prebentziozko idatz-ohar bidez jasoko dira 51. artikulua 3. eta 6. zenbakiko egintzak. Idatz-ohar horiek lau urtera iraugiko dira, eta epe hori hirigintza-organo jardulearen eskariz edo jurisdikzio-organoaren ebazpenez luzatu ahal izango da, hurrenez hurren.

3. Orri bazterreko ohar bidez jasoko dira 51. artikulua adierazten dituen gainerako egintza eta erabakiak. Espresuki besterik ezarri ezean, orri bazterreko oharrek indarraldi mugagabea izango dute, baina haiek sortu dituen tituluak adierazten duen uneko hirigintza-izaera ezagutaraztea beste efekturik ez dute eragingo.

## 54. artikulua. Onurak eta kargak banatzeko espedienteak

1. Onurak eta kargak banatzeko dagokion espedientearen hastea edo hirigintzako eraldatze-jarduketa baten barruko lursailak kasuan kasuko kudeaketa formaren betebeharrak betetzeari loturik geratzea Erregistroan jasoko dira dagokion finken azken jabari-inskripzioaren bazterrean egindako idatz-ohar baten bidez.

2. Orri bazterreko oharrak hiru urteko iraupena izango du eta beste hiru urtera luzatu ahal izango da hura egitea eskatu zuen organoaren zein hirigintza-intereseko elkarrean eskariz.

3. Onurak eta kargak banatzeko tituluak honela inskriba daitezke: dela jatorrizko finken inskripzioak eta indarrean diren gainerako idazpenak zuzenean ezertatuz, proiektuaren ondoriozko finken erregistro-folioari erreferentzia egiten zaiolarik, dela aurrez hirigintzako eraldatze-jarduketan sartzen den

dad de la superficie comprendida en la actuación de transformación urbanística y su división en todas y cada una de las fincas resultantes de las operaciones de distribución.

4. Tomada la nota a la que se refiere el apartado 1, se producirán los siguientes efectos:

a) Si el título adjudicare la finca resultante al titular registral de la finca originaria, la inscripción se practicará a favor de éste.

b) Si el título atribuyere la finca resultante al titular registral de la finca originaria según el contenido de la certificación que motivó la práctica de la nota, la inscripción se practicará a favor de dicho titular y se cancelarán simultáneamente las inscripciones de dominio o de derechos reales sobre la finca originaria que se hubieren practicado con posterioridad a la fecha de la nota.

c) En el caso a que se refiere la letra anterior, se hará constar al margen de la inscripción o inscripciones de las fincas de resultado, la existencia de los asientos posteriores que han sido objeto de cancelación, el título que los motivó y su respectiva fecha.

d) Para la práctica de la inscripción de la finca o fincas de resultado a favor de los adquirentes de la finca originaria bastará la presentación del título que motivó la práctica de asientos cancelados posteriores a la nota, con la rectificación que corresponda y en la que se hagan constar las circunstancias y descripción de la finca o fincas resultantes del proyecto, así como el consentimiento para tal rectificación del titular registral y de los titulares de los derechos cancelados conforme a la letra b). Mientras no se lleve a cabo la expresada rectificación, no podrá practicarse ningún asiento sobre las fincas objeto de la nota marginal a que se refiere la letra c).

5. El título en cuya virtud se inscribe el proyecto de distribución de beneficios y cargas será suficiente para la modificación de entidades hipotecarias, rectificación de descripciones registrales, inmatriculación de fincas o de excesos de cabida, reanudación del tracto sucesivo, y para la cancelación de derechos reales incompatibles, en la forma que reglamentariamente se determine.

### **Disposición adicional primera. Sistema de información urbana**

Con el fin de promover la transparencia, la Administración General del Estado, en colaboración con las Comunidades Autónomas, definirá y promoverá la aplicación de aquellos criterios y principios básicos que posibiliten, desde la coordinación y complementación con las administraciones competentes en la



azalera guztia elkartu, eta banaketa-eragiketen ondoriozko finka guztien artean banatuz.

4. Artikulu honen 1. zenbakian adierazitako oharra jasotakoan, efektu hauek izango dira:

a) Tituluak jatorrizko finkaren erregistro-titularrari esleitzen badio ondoriozko finka, titular horren alde egingo da inskripzioa.

b) Tituluak oharra eragin zuen ziurtagiriaren edukiaren arabera esleitzen badio jatorrizko finkaren erregistro-titularrari ondoriozko finka, inskripzioa titular horren alde egingo da eta, aldi berean, oharraren dataren ondoren egindako jatorrizko finkaren gaineko jabariaren zein eskubide errealek inskripzioak ezeztatuko dira.

c) Aurreko letran adierazitako kasuan, ondoriozko finken inskripzioaren edo inskripzioen bazterrean, honako hauek jasoko dira: ondorengo idazpen batzuk bazirela eta ezeztatuak izan direla, eta haiek sortu zituen titulua eta bakoitzaren data.

d) Ondoriozko finka edo finkak jatorrizko finka eskuratu zutenen alde inskribatzeko, aski izango da aurkeztea oharraren ondorengo idazpen ezeztatuak eragin zituen titulua, dagokion zuzenketarekin batera; zuzenketa, proiektuaren ondoriozko finka edo finken inguruabarrak eta deskripzioa jasoko dira, eta erregistro-titularrak eta b) letraren arabera ezeztaturiko eskubideen titularrek zuzenketa hori egiteko emandako adostasuna. Aipaturiko zuzenketa egiten ez den bitartean, ezin egingo da inolako idazpenik c) letran adierazitako orri bazterreko oharraren objektu diren finkei buruz.

5. Onurak eta kargak banatzeko proiektua inskribatzen duen titulua aski izango da hipotekak aldatzeko, erregistro-deskripzioak zuzentzeko, finkak edo gehiegizko edukierak immatrikulatzeko, segidako traktuari berrekiteko, eta eskubide erreal bateraezinak ezeztatzeko, erregelamenduz ezarritako moduan.

### **Lehen xedapen gehigarria. Hiri-informazioarako sistema**

Gardentasuna sustatzeko helburuz, Estatuaren Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoekin lankidetzan, irizpide eta oinarritzko printzipio batzuk definituko ditu lurzoruari eta hirigintzari buruzko informazio-sistema publiko orokor eta integratu bat eratzea eta etengabe eguneratzea ahalbidetzeko, eta

materia, la formación y actualización permanente de un sistema público general e integrado de información sobre suelo y urbanismo, procurando, asimismo, la compatibilidad y coordinación con el resto de sistemas de información y, en particular, con el Catastro Inmobiliario.

### **Disposición adicional segunda. Bienes afectados a la Defensa Nacional, al Ministerio de Defensa o al uso de las fuerzas armadas**

1. Los instrumentos de ordenación territorial y urbanística, cualquiera que sea su clase y denominación, que incidan sobre terrenos, edificaciones e instalaciones, incluidas sus zonas de protección, afectos a la Defensa Nacional deberán ser sometidos, respecto de esta incidencia, a informe vinculante de la Administración General del Estado con carácter previo a su aprobación.

2. No obstante lo dispuesto en esta Ley, los bienes afectados al Ministerio de Defensa o al uso de las Fuerzas Armadas y los puestos a disposición de los organismos públicos que dependan de aquél, están vinculados a los fines previstos en su legislación especial.

### **Disposición adicional tercera. Potestades de ordenación urbanística en Ceuta y Melilla**

Las Ciudades de Ceuta y Melilla ejercerán sus potestades normativas reglamentarias dentro del marco de esta Ley y de las que el Estado promulgue al efecto.

En todo caso, corresponderá a la Administración General del Estado la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de estas Ciudades y de sus revisiones, así como de sus modificaciones que afecten a las determinaciones de carácter general, a los elementos fundamentales de la estructura general y orgánica del territorio o a las determinaciones a que se refiere el apartado tercero de la disposición final primera de esta Ley.

La aprobación definitiva de los Planes Parciales y Especiales, y de sus modificaciones o revisiones, así como de las modificaciones del Plan General no comprendidas en el párrafo anterior, corresponderá a los órganos competentes de las Ciudades de Ceuta y Melilla, previo informe preceptivo de la Administración General del Estado, el cual será vinculante en lo relativo a cuestiones de legalidad o a la afectación a intereses generales de competencia estatal, deberá emitirse en el plazo de tres meses y se entenderá favorable si no se emitiera en dicho plazo.

haien aplikazioa sustatuko, gaian eskudun diren administrazioekiko koordinazioa eta osagarritasuna baliatuz; era berean, informazio-sistema hori gainerakoekin —eta bereziki Higiezinaren Katastroarekin— bateragarria eta koordinatua izan dadin saiatuko da.

### **Bigarren xedapen gehigarria. Defentsa Nazionalera, Defentsa Ministeriora edo indar armatuen erabilerara afektaturiko ondasunak**

1. Defentsa Nazionalera afektaturiko lursail, eraikin eta instalazioei —eta baita haien babes-eremuei ere— eragiten dieten lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnek, zeinahi motatakoak direla eta zeinahi izendapen dutela ere, Estatuaren Administrazio Orokorraren lotura-indarreko txosten bat beharko dute, eragin horri dagokionez, onetsiak izan aurretik.

2. Lege honetan xedatutakoa gorabehera, Defentsa Ministeriora edo Indar Armatuen erabilerara afektaturiko ondasunak, eta ministerio horren mendeako organismo publikoen esku jarritakoak, beren legeria berezian aurreikusitako helburuen mende daude.

### **Hirugarren xedapen gehigarria. Hirigintza-antolamendurako ahalak Ceuta eta Melillan**

Ceuta eta Melillako hiriek lege honen eta Estatuak hartarako emango dituenen esparruen barruan baliatuko dituzte beren erregelamenduak egiteko arautze-ahalak.

Nolanahi ere den, Estatuaren Administrazio Orokorrari dagokio Hiri horien Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onestea eta berrikustea, bai eta zehaztapen orokorrei, lurraldearen egitura orokor eta organikoaren funtsezko elementuei edo lege honen amaierako lehen xedapeneko hirugarren zenbakian aipatzen diren zehaztapenei eragiten dieten aldaketak ere.

Ceuta eta Melillako hirietako organo eskudunei dagokie Plan Partzialak eta Bereziak eta haien aldaketak edo berrikuspenak behin betiko onestea, bai eta aurreko paragrafoan sartzen ez diren Plan Orokorraren aldaketak onestea ere, aurrez Estatuaren Administrazio Orokorrak nahitaezko txostena egin ondoren. Txosten horrek lotura-indarra izango du legezkotasun arazoei dagokionez edo estatuaren eskumeneko interes orokorrak ukitzeari dagokionez; hiru hilabeteko epean eman beharko da eta, epe horretan ematen ez bada, aldekoa dela ulertuko da.

## Disposición adicional cuarta. Gestión de suelos del patrimonio del Estado

1. Será aplicable a los bienes inmuebles del patrimonio del Estado lo dispuesto en el artículo 39 de esta Ley sobre el acceso al Registro de la Propiedad de las limitaciones, obligaciones, plazos o condiciones de destino en las enajenaciones de fincas destinadas a la construcción de viviendas sujetas a algún régimen de protección pública que permita tasar su precio máximo de venta o alquiler.

2. Se añade un nuevo artículo 190 bis en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, con la siguiente redacción:

«Artículo 190 bis. Régimen urbanístico de los inmuebles afectados.

Cuando los instrumentos de ordenación territorial y urbanística incluyan en el ámbito de las actuaciones de urbanización o adscriban a ellas terrenos afectados o destinados a usos o servicios públicos de competencia estatal, la Administración General del Estado o los organismos públicos titulares de los mismos que los hayan adquirido por expropiación u otra forma onerosa participarán en la equidistribución de beneficios y cargas en los términos que establezca la legislación sobre ordenación territorial y urbanística.»

3. Se modifica el apartado 5 de la disposición final segunda de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, que queda redactado en los siguientes términos:

«5. Tienen el carácter de la legislación básica, de acuerdo con lo preceptuado en el artículo 149.1.18.<sup>a</sup> de la Constitución, las siguientes disposiciones de esta Ley: artículo 1; artículo 2; artículo 3; artículo 6; artículo 8, apartado 1; artículo 27; artículo 28; artículo 29, apartado 2; artículo 32, apartados 1 y 4; artículo 36, apartado 1; artículo 41; artículo 42; artículo 44; artículo 45; artículo 50; artículo 55; artículo 58; artículo 61; artículo 62; artículo 84; artículo 91, apartado 4; artículo 92, apartados 1, 2, y 4; artículo 93, apartados 1, 2, 3 y 4; artículo 94; artículo 97; artículo 98; artículo 100; artículo 101, apartados 1, 3 y 4; artículo 102, apartados 2 y 3; artículo 103, apartados 1 y 3; artículo 106, apartado 1; artículo 107, apartado 1; artículo 109, apartado 3; artículo 121, apartado 4; artículo 183; artículo 184; artículo 189; artículo 190; artículo 190 bis; artículo 191; disposición transitoria primera, apartado 1; disposición transitoria quinta.»

4. Se añade una letra e) al apartado 2 del artículo 71 de la Ley 50/1998, de 30 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social, con la siguiente redacción:

## Laugarren xedapen gehigarria. Estatuaren ondareko lurzoruen kudeaketa

1. Estatuaren ondareko ondasun higiezinari aplikagarria izango zaie lege honen 39. artikuluan honako hauek Jabetza Erregistroan sartzeari dagokionez xedaturikoa: beren gehienezko salmenta- edo alokairu-prezioa tasatzea ahalbidetzen duen babes publikoko araubideren baten mendeko etxebizitzak eraikitzeko finkak besterentzean egon daitezkeen mugapenak, betebeharrak, epeak edo xede-baldintzak.

2. 190 bis artikulua berri bat gehitzen zaio 2003ko azaroaren 3ko Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legeari, honela idatzirik:

«190 bis artikulua. Higiezin afektatuen hirigintza-araubidea.

Lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnek estatuaren eskumeneko erabilera edo zerbitzu publikoetara afektaturiko zein xedaturiko lursailak urbanizatzeko jarduketan barruan sartzen dituztenean edo haiei atxikitzen, Estatuaren Administrazio Orokorrek edo lursail horiek desjabetze bidez edo ordainbidezko beste era batez eskuratu eta haien titular diren organismo publikoek parte hartuko dute lurralde- eta hirigintza-antolamenduari buruzko legeriak ezartzen dituen baldintzetan onurak eta kargak ekitatez banatzen.»

3. Aldatu egiten da 2003ko azaroaren 3ko Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen amaierako bigarren xedapenaren 5. zenbakia, eta honela idatzita geratzen:

«5. Oinarrizko legeriaren izaera dute, Konstituzioaren 149.1.18. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege honetako xedapen hauek: 1. artikulua; 2. artikulua; 3. artikulua; 6. artikulua; 8. artikulua 1. zenbakia; 27. artikulua; 28. artikulua; 29. artikulua 2. zenbakia; 32. artikulua 1. eta 4. zenbakiak; 36. artikulua 1. zenbakia; 41. artikulua; 42. artikulua; 44. artikulua; 45. artikulua; 50. artikulua; 55. artikulua; 58. artikulua; 61. artikulua; 62. artikulua; 84. artikulua; 91. artikulua 4. zenbakia; 92. artikulua 1., 2. eta 4. zenbakiak; 93. artikulua 1., 2., 3. eta 4. zenbakiak; 94. artikulua; 97. artikulua; 98. artikulua; 100. artikulua; 101. artikulua 1., 3. eta 4. zenbakiak; 102. artikulua 2. eta 3. zenbakiak; 103. artikulua 1. eta 3. zenbakiak; 106. artikulua 1. zenbakia; 107. artikulua 1. zenbakia; 109. artikulua 3. zenbakia; 121. artikulua 4. zenbakia; 183. artikulua; 184. artikulua; 189. artikulua; 190. artikulua; 190 bis artikulua; 191. artikulua; lehen xedapen iragankorraren 1. zenbakia; bosgarren xedapen iragankorra.»

4. Letra bat gehitzen zaio, e) letra, 1998ko abenduaren 30eko Neurri Fisikal, Administratibo eta Gizarte Arloko buruzko 50/1998 Legearen 71. artikuluko 2. zenbakiari, honela idatzirik:

«e) Coadyuvar, con la gestión de los bienes inmuebles que sean puestos a su disposición, al desarrollo y ejecución de las distintas políticas públicas en vigor y, en particular, de la política de vivienda, en colaboración con las Administraciones competentes. A tal efecto, podrá suscribir con dichas Administraciones convenios, protocolos o acuerdos tendentes a favorecer la construcción de viviendas sujetas a algún régimen de protección que permita tasar su precio máximo en venta, alquiler u otras formas de acceso a la vivienda. Dichos acuerdos deberán ser autorizados por el Consejo Rector».

5. Se añade un ordinal 7.<sup>a</sup> en el apartado 2 del artículo 53 de la Ley 14/2000, de 29 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social, con la siguiente redacción:

«7.<sup>a</sup> Coadyuvar, con la gestión de los bienes inmuebles que sean puestos a su disposición, al desarrollo y ejecución de las distintas políticas públicas en vigor y, en particular, de la política de vivienda, en colaboración con las Administraciones competentes. A tal efecto, podrá suscribir con dichas Administraciones convenios, protocolos o acuerdos tendentes a favorecer la construcción de viviendas sujetas a algún régimen de protección que permita tasar su precio máximo en venta, alquiler u otras formas de acceso a la vivienda.»

#### **Disposición adicional quinta. Modificación del artículo 43 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954**

Se modifica el apartado 2 del artículo 43 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954, que queda redactado en los términos siguientes:

«2. El régimen estimativo a que se refiere el párrafo anterior:

a) No será en ningún caso de aplicación a las expropiaciones de bienes inmuebles, para la fijación de cuyo justiprecio se estará exclusivamente al sistema de valoración previsto en la Ley que regule la valoración del suelo.

b) Sólo será de aplicación a las expropiaciones de bienes muebles cuando éstos no tengan criterio particular de valoración señalado por Leyes especiales».

#### **Disposición adicional sexta. Suelos forestales incendiados**

1. Los terrenos forestales incendiados se mantendrán en la situación de suelo rural a los efectos de esta Ley y estarán destinados al uso forestal, al menos durante el plazo previsto en el artículo 50 de la Ley de Montes, con las excepciones en ella previstas.

«e) Laguntzea, bere esku jarritako ondasun higiezinak kudeatuz, indarrean dauden politika publikoak garatzen eta exekutatzen, etxebizitza-politika bereziki, administrazio eskudunekin lankidetzan. Horretarako, itunak, protokoloak edo hitzarmenak sinatu ahal izango ditu administrazio horiekin, haien helburua izango delarik salmentan, alokairuan edo etxebizitza iristeko beste edozein modutan gehienezko prezioa tasatzea ahalbidetzen duen babes-araubideren baten mendeko etxebizitzak eraikitzea bultzatzea. Hitzarmen horiek Gobernu Kontseiluak baimendu beharko ditu.»

5. Ordinal bat gehitzen da, 7.a, 2000ko abenduaren 29ko Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Arloko 14/2000 Legearen 53. artikuluko 2. zenbakian, honela idatzirik:

«7.a. Bere esku jarritako ondasun higiezinak kudeatuz, indarrean dauden politika publikoak —eta bereziki, etxebizitza-politika— garatzen eta exekutatzen laguntzea, administrazio eskudunekin lankidetzan. Horretarako, itunak, protokoloak edo hitzarmenak sinatu ahal izango ditu administrazio horiekin, haien helburua izango delarik salmentan, alokairuan edo etxebizitza iristeko beste edozein modutan gehienezko prezioa tasatzea ahalbidetzen duen babes-araubideren baten mendeko etxebizitzak eraikitzea bultzatzea.»

### **Bosgarren xedapen gehigarria. 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 43. artikulua aldatzea**

Aldatu egiten da 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 43. artikuluko 2. zenbakia, eta honela idatzita geratzen:

«2. Aurreko paragrafoan aipatzen den kalkulu-araubidea:

a) Inoiz ez zaie aplikatuko ondasun higiezin desjabetzei; haien prezio zuzena finkatzeko, lurzoruaren balioespena arautzen duen legean aurreikusitako balioespen-sistema baino ez da aplikatuko.

b) Kasu honetan aplikatu ahal izango zaie ondasun higigarrien desjabetzei: ondasunok lege bereziek ezarritako balioespen-irizpide partikularrik ez dutenean».

### **Seigarren xedapen gehigarria. Suteek erretako baso-lurzoruak**

1. Suteek erretako baso-lurrek landa-lurzoru izaera mantenduko dute lege honi dagokionez, eta basogintzarako erabiliko dira, gutxienez Mendiei buruzko Legearen 50. artikuluan aurreikusitako epean, hartan aurreikusten diren salbuespenekin.

2. La Administración forestal deberá comunicar al Registro de la Propiedad esta circunstancia, que será inscribible conforme a lo dispuesto por la legislación hipotecaria.

3. Será título para la inscripción la certificación emitida por la Administración forestal, que contendrá los datos catastrales identificadores de la finca o fincas de que se trate y se presentará acompañada del plano topográfico de los terrenos forestales incendiados, a escala apropiada.

La constancia de la certificación se hará mediante nota marginal que tendrá duración hasta el vencimiento del plazo a que se refiere el apartado primero. El plano topográfico se archivará conforme a lo previsto por el artículo 51.4 del Reglamento Hipotecario, pudiendo acompañarse copia del mismo en soporte magnético u óptico.

#### **Disposición adicional séptima. Reglas para la capitalización de rentas en el suelo rural**

1. Para la capitalización de la renta anual real o potencial de la explotación a que se refiere el apartado 1 del artículo 23, se utilizará como tipo de capitalización la última referencia publicada por el Banco de España del rendimiento interno en el mercado secundario de la deuda pública de plazo entre dos y seis años.

2. En la Ley de Presupuestos Generales del Estado se podrá modificar el tipo de capitalización establecido en el apartado anterior y fijar valores mínimos según tipos de cultivos y aprovechamientos de la tierra, cuando la evolución observada en los precios del suelo o en los tipos de interés arriesgue alejar de forma significativa el resultado de las valoraciones respecto de los precios de mercado del suelo rural sin consideración de expectativas urbanísticas.

#### **Disposición adicional octava. Participación del Estado en la ordenación territorial y urbanística**

La Administración General del Estado podrá participar en los procedimientos de ordenación territorial y urbanística en la forma que determine la legislación en la materia. Cuando así lo prevea esta legislación, podrán participar representantes de la Administración General del Estado, designados por ella, en los órganos colegiados de carácter supramunicipal que tengan atribuidas competencias de aprobación de instrumentos de ordenación territorial y urbanística.



2. Baso-administrazioak Jabetza Erregistroari jakinarazi beharko dio gorabehera hori, eta hipoteka-legeriak xedatutakoaren arabera inskribatu ahal izango da.

3. Baso-administrazioak emandako ziurtagiria izango da inskripziorako titulu. Ziurtagiriak delako finka edo finkak identifikatzen dituen katastro-datuak jasoko ditu eta, ziurtagiriarekin batera, erretako baso-lurren plano topografikoa aurkeztuko da, eskala egokian.

Ziurtagiria badela orri bazterreko ohar batean jasoko da, eta ohar horrek lehenengo zenbakian aipatzen den epea amaitu arteko iraupena izango du. Plano topografikoa Hipoteka Erregelamenduaren 51.4 artikulua aurreikusitakoaren arabera artxibatuko da, eta haren kopia bat ere erantsi ahal izango da euskarri magnetiko nahiz optikoan.

### **Zazpigarren xedapen gehigarria. Landa-lurzoruan errentak kapitalizatzeko arauak**

1. Lege honen 23. artikuluko 1. zenbakian aipatzen den ustiapenaren urteko errenta erreal edo potentziala kapitalizatzeko, bi eta sei urte arteko zor publikoak bigarren mailako merkatuan izandako barne-etekinaz Espainiako Bankuak argitaraturiko azken erreferentzia erabiliko da kapitalizazio-tasagisa.

2. Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean, aurreko zenbakian ezarritako kapitalizazio-tasa aldatu ahal izango da eta gutxienezko balioak finkatu, labore moten eta lur-aprobetxamenduen arabera, baldin eta lurzorua prezioetan edo interes-tasetan izandako bilakaerak erakusten badu arriskua dagoela, balioespenean hirigintza-itxarokizunak kontuan hartu gabe, balioespenen emaitza landa-lurzorua merkatuko prezioetatik nabarmen urruntzeko.

### **Zortzigarren xedapen gehigarria. Estatuaren parte-hartzea lurralde- eta hirigintza-antolamenduan**

Estatuaren Administrazio Orokorrek parte hartu ahal izango du lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren prozeduretan, gaiari buruzko legeriak zehazten duen eran. Legeria horrek hala aurreikusten duenean, Estatuaren Administrazio Orokorren ordezkariak parte hartu ahal izango dute, hark izendaturik, lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnak onesteko eskumenak esleituak dituzten udalerriz gaineko organo kide anitzekoetan.

## Disposición adicional novena. Modificación de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local

Se modifican los siguientes artículos y apartados de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases del Régimen Local, que quedan redactados en los términos siguientes:

### 1. Modificación del artículo 22.2.

«Corresponden, en todo caso, al Pleno municipal en los Ayuntamientos, y a la Asamblea vecinal en el régimen de Concejo Abierto, las siguientes atribuciones:

(...)

c) La aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística, así como los convenios que tengan por objeto la alteración de cualesquiera de dichos instrumentos.

(...)

### 2. Adición de un nuevo artículo 70 ter.

«1. Las Administraciones públicas con competencias de ordenación territorial y urbanística deberán tener a disposición de los ciudadanos o ciudadanas que lo soliciten, copias completas de los instrumentos de ordenación territorial y urbanística vigentes en su ámbito territorial, de los documentos de gestión y de los convenios urbanísticos.

2. Las Administraciones públicas con competencias en la materia, publicarán por medios telemáticos el contenido actualizado de los instrumentos de ordenación territorial y urbanística en vigor, del anuncio de su sometimiento a información pública y de cualesquiera actos de tramitación que sean relevantes para su aprobación o alteración.

En los municipios menores de 5.000 habitantes, esta publicación podrá realizarse a través de los entes supramunicipales que tengan atribuida la función de asistencia y cooperación técnica con ellos, que deberán prestarles dicha cooperación.

3. Cuando una alteración de la ordenación urbanística, que no se efectúe en el marco de un ejercicio pleno de la potestad de ordenación, incremente la edificabilidad o la densidad o modifique los usos del suelo, deberá hacerse constar en el expediente la identidad de todos los propietarios o titulares de otros derechos

## Bederatzigarren xedapen gehigarria. Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko Legea aldatzea

Toki Araubidearen oinarriak arautzeko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen artikulua eta zerbaki hauek aldatzen dira, eta honela idatzirik geratzen:

### 1. 22.2 artikulua aldatzea.

«Udaletan Udalbatzaren Osoko Bilkurari eta Kontzeju Irekiko araubidean Auzotarren Batzarrari dagozkie, edozein kasutan, honako eskudantzia hauek:

(...)

c) Plangintza orokorrari hasierako onespina ematea eta hirigintza-legerian aurreikusitako planei eta gainerako antolamendu-tresnei buruzko udal-izapideak amaitzeko onespina ematea, bai eta tresna horietariko edozein aldatzeko xedea duten hitzarmenak onestea ere.

(...)

### 2. 70 ter artikulua berri bat eranstea.

«1. Lurralde- eta hirigintza-antolamenduko eskumenak dituzten administrazio publikoek herritarren esku jarri beharko dituzte, haiek hala eskatuz gero, beren lurralde-eremuan indarrean dauden lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresna, kudeaketa-dokumentu eta hirigintza-hitzarmenen kopia osoak.

2. Gaian eskudun diren administrazio publikoek bitarteko telematikoz argitaratuko dute indarrean dauden lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnen eduki eguneratua, haren informazio publikoa ematen delako iragarria eta haiek onesteko zein aldatzeko garrantzizkoak diren izapidetze-egintza oro.

5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, haiei laguntza emateko eta haiekin lankidetzaren teknikoan jarduteko funtzioa esleitu zaien udalaz gaindiko erakundeek bitartez egin ahal izango da argitaratze hori, eta erakundeek lankidetzaren eman beharko diete.

3. Antolatze-ahala osorik baliatu gabe egindako hirigintza-antolamenduen aldaketa batek eraikigarritasuna edo dentsitatea handitzen edo lurzoruaren erabilerak aldatzen dituztenean, espedientearen jaso beharko da zein diren aldaketak ukituriko finkek aldaketa hasi aurreko bost urteetan izan dituzten jabe guz-

reales sobre las fincas afectadas durante los cinco años anteriores a su iniciación, según conste en el registro o instrumento utilizado a efectos de notificaciones a los interesados de conformidad con la legislación en la materia.»

### 3. Modificación del artículo 75.7.

«Los representantes locales, así como los miembros no electos de la Junta de Gobierno Local, formularán declaración sobre causas de posible incompatibilidad y sobre cualquier actividad que les proporcione o pueda proporcionar ingresos económicos.»

Formularán asimismo declaración de sus bienes patrimoniales y de la participación en sociedades de todo tipo, con información de las sociedades por ellas participadas y de las liquidaciones de los impuestos sobre la Renta, Patrimonio y, en su caso, Sociedades.

Tales declaraciones, efectuadas en los modelos aprobados por los plenos respectivos, se llevarán a cabo antes de la toma de posesión, con ocasión del cese y al final del mandato, así como cuando se modifiquen las circunstancias de hecho.

Las declaraciones anuales de bienes y actividades serán publicadas con carácter anual, y en todo caso en el momento de la finalización del mandato, en los términos que fije el Estatuto municipal.

Tales declaraciones se inscribirán en los siguientes Registros de intereses, que tendrán carácter público:

a) La declaración sobre causas de posible incompatibilidad y actividades que proporcionen o puedan proporcionar ingresos económicos, se inscribirá, en el Registro de Actividades constituido en cada Entidad local.

b) La declaración sobre bienes y derechos patrimoniales se inscribirá en el Registro de Bienes Patrimoniales de cada Entidad local, en los términos que establezca su respectivo estatuto.

Los representantes locales y miembros no electos de la Junta de Gobierno Local respecto a los que, en virtud de su cargo, resulte amenazada su seguridad personal o la de sus bienes o negocios, la de sus familiares, socios, empleados o personas con quienes tuvieran relación económica o profesional podrán realizar la declaración de sus bienes y derechos patrimoniales ante el Secretario o la Secretaria de la Diputación Provincial o, en su caso, ante el órgano competente de la Comunidad Autónoma correspondiente. Tales declaraciones se inscribirán en el Registro Especial de Bienes Patrimoniales, creado a estos efectos en aquellas instituciones.

tiak edo haien gainean diren bestelako eskubide errealen titular guztiak, erregistroan edo erabilitako tresnan jasotakoaren arabera, interesdunei jakinarazteko, gaiari buruzko legeriaren arabera.»

### 3. 75.7 artikulua aldatzea.

«Tokiko ordezkariak, bai eta Tokiko Gobernu Batzordeko kide hautatu gabeek, deklarazioa egingo dute bateraezintasunerako arrazoiak izan daitezkeenei buruz eta diru-sarrerak ematen dizkien edo eman diezazkiekeen edozein jarduerari buruz.

Era berean, beren ondare-ondasunen eta edonolako elkarteetan duten partaidetzaren deklarazioa egingo dute, informazioa emanez partaide diren elkar-teez eta errentaren, ondarearen eta, hala badagokio, sozietateen gaineko zergen likidazioez.

Deklarazio horiek osoko bilkuretan onetsitako eruedetan egingo dira, kargua hartu aurretik, kargua uzterakoan eta agintaldiaren amaieran, eta baita inguruabarrak aldatzen direnean ere.

Ondasun eta jardueren urteko deklarazioak urtero argitaratuko dira eta, edozein kasutan, agintaldia amaitzeko unean, Udal Estatutuak ezarri bezala.

Deklarazio horiek izaera publikoko interes-erregistro hauetan inskribatuko dira:

a) Bateraezintasuna sor dezaketen arrazoiei eta diru-sarrerak ematen dituzten edo eman ditzaketen jardueri buruzko deklarazioa toki-entitate bakoitzean eraturako Jarduera Erregistroan inskribatuko da.

b) Ondare-ondasun eta -eskubideen deklarazioa toki-entitate bakoitzeko Ondare Ondasunen Erregistroan inskribatuko da, bakoitzaren estatutuak ezarri bezala.

Toki-ordezkariek eta Tokiko Gobernu Batzarreko kide hautatu gabeek, beren karguaren kariaz mehatxaturik gertatzen bada beren segurtasun pertsonala edo beren ondasun edo negozioena, senideena, bazkideena, enplegatuen edo berekin harreman ekonomiko zein profesionala duten pertsonena, Diputazio Probintzialeko idazkariaren aurrean egin ahal izango dute beren ondare-ondasun eta -eskubideen deklarazioa edo, hala badagokio, dagokion autonomia-erkidegoko organo eskudunaren aurrean. Deklarazio horiek erakunde haietan hartarako sortutako Ondare Ondasunen Erregistro Berezian inskribatuko dira.

En este supuesto, aportarán al Secretario o Secretaria de su respectiva entidad mera certificación simple y sucinta, acreditativa de haber cumplimentado sus declaraciones, y que éstas están inscritas en el Registro Especial de Intereses a que se refiere el párrafo anterior, que sea expedida por el funcionario encargado del mismo.»

#### 4. Inclusión de un nuevo apartado 8 en el artículo 75.

«8. Durante los dos años siguientes a la finalización de su mandato, a los representantes locales a que se refiere el apartado primero de este artículo que hayan ostentado responsabilidades ejecutivas en las diferentes áreas en que se organice el gobierno local, les serán de aplicación en el ámbito territorial de su competencia las limitaciones al ejercicio de actividades privadas establecidas en el artículo 8 de la Ley 5/2006, de 10 de abril, de Regulación de los Conflictos de Intereses de los Miembros del Gobierno y de los Altos Cargos de la Administración General del Estado.

A estos efectos, los Ayuntamientos podrán contemplar una compensación económica durante ese periodo para aquéllos que, como consecuencia del régimen de incompatibilidades, no puedan desempeñar su actividad profesional, ni perciban retribuciones económicas por otras actividades.»

5. Inclusión de una nueva Disposición adicional Decimoquinta. «Régimen de incompatibilidades y declaraciones de actividades y bienes de los Directivos locales y otro personal al servicio de las Entidades locales».

1. Los titulares de los órganos directivos quedan sometidos al régimen de incompatibilidades establecido en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, y en otras normas estatales o autonómicas que resulten de aplicación.

No obstante, les serán de aplicación las limitaciones al ejercicio de actividades privadas establecidas en el artículo 8 de la Ley 5/2006, de 10 de abril, de Regulación de los Conflictos de Intereses de los miembros del Gobierno y de los Altos Cargos de la Administración General del Estado, en los términos en que establece el artículo 75.8 de esta Ley.

A estos efectos, tendrán la consideración de personal directivo los titulares de órganos que ejerzan funciones de gestión o ejecución de carácter superior, ajustándose a las directrices generales fijadas por el órgano de gobierno de la Corporación, adoptando al efecto las decisiones oportunas y disponiendo para ello de un margen de autonomía, dentro de esas directrices generales.

Kasu horretan, ziurtagiri sinple eta laburra emango diote dagokien erakundeko idazkariari, beren deklarazioak egin dituztela eta aurreko paragrafoan adierazten den Interesen Erregistro Berezian inskribatuta daudelako frogagarri, erregistro horretaz arduratzen den funtzionarioak emana.»

4. 75. artikuluan 8. zenbaki berri bat sartzea.

«8. Beren agintaldia amaitu ondorengo bi urteetan, artikuluko honen lehenengo zenbakian aipatzen diren eta tokiko gobernuak bere antolaketarako sorturiko sailetan erantzukizun exekutiboak izan dituzten toki-ordezkariei aplikagarriak izango zaizkie, beren eskumeneko lurralde-eremuan, Gobernuko kideen eta Estatuaren Administrazio Orokorreko goi-karguen interes-gatazkak arautzen dituen 2006ko apirilaren 10eko 5/2006 Legearen 8. artikuluan jarduera pribatuak egiteko ezarritako mugapenak.

Horri dagokionez, udalek konpentsazio ekonomiko bat aurreikusitako ahal izango dute denboraldi horretan bateraezintasun-araubidearen ondorioz beren lanbide profesionalean jardun ezin eta beste ezein jarduerarengatik ordainsarik jasotzen ez dutenentzat.»

